

Xabierren mundua

XVII. mendea San Frantzisko Xabierkoarenaren
bizitzaren bidez ikusia

San Frantzisko Xabierkoa jaiotzearen
V. mendeurrena
2006

Xabierren mundua

Xabierren mundua

XVI. mendea San Frantzisko Xabierkoaren
bizitzaren bidez ikusia



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Geografia eta Historia materialak Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklorako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako

Titulua:

Xabierren mundua. XVI. mendea San Frantzisko Xabierkoaren bizitzaren bidez ikusia

Testua:

Curriculum Diseinu eta Garapenerako Unitate Teknikoa

Argitalpenaren koordinazioa:

Ikasliburu eta Ikas Materialen Unitate Teknikoa

Testuen eta mapen errebisioa:

Javier Fortún Pérez de Ciriza

Argazkiak eta mapak:

Itinerario universal de San Francisco Javier, Nafarroako Gobernua, Iruña, 2002

79. orrialdea: Argazki hau Nafarroako Gobernuko Turismoa eta Irdia Bultzatzeko Zerbitzuaren agiritegiak emana da

Ilustrazioak, mapak eta maketazioa:

Amaia Vidart Taniñe

Argitaratzailea:

Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua

Moldiztegia:

Gráficas Lizarra

ISBN:

84-235-2556-2

L.G.:

Na-2867/2004

Sustatzailea eta banatzailea:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa

Komunikazio Zuzendaritza Nagusia

Navas de Tolosa kalea, 21

Tf.: 848 427121 Fax: 848 427123

31002 Iruña

fondo.publicaciones@cfnavarra.es

www.cfnavarra.es/publicaciones

Abenduaren 3an Nafarroako bere patroia San Frantzisko Xabierren festa eguna ospatzen du: Nafarroako seme handi haren sona herrialde guztietan barrena zabaldu zen eta haren oroitzapenak, hil zenetik bostehun urte betetzear dauden honetan, bere herrikideen artean ez ezik Ekialdeko herrien artean ere bizirik irauten du (haren erlijio jardunaren gertaleku nagusia), eta bai mundu guztian ere.

Frantzisko Xabierkoak (1506-1552) XVI. mendeko historia gogoangarria bizi izan zuen: garai hartan Europar Estatu modernoak sendotu egiten da eta harekin batera monarkia absolutua ere bai. Nobleziak bere lehengo botere-nahiari utzi eta bere erregearen inguruan biltzen da gortean. Aurkiunde geografiko gertaberriek esker harreman komertzialak hasi ahalko dira Asiarekin eta Amerikarekin eta hortik bi inperio kolonial handi sortuko dira: espainola eta portugesa. Bide berri horietan barrena Espainiako eta Portugalgo misiolariak, besteak beste Frantzisko Xabierkoak, erlijio katolikoa zabalduko dute.

Bestalde, XVI. mende hasieran Alemanian erlijio krisi latza gertatzen da; krisi horrek Eliza Protestanteari Erromako obediencia alde egitea ekarriko du. Ondoren, eta ondorioz, Kontrarreforma sortu zen: Eliza Katolikoak bere aldetik egindako erreforma alegia; horretan Jesusen Konpainia izan zen bide-urratzaile, zeinaren bereizgarria zen Aita Santuari obeditzeko "laugarren boto" berariazkoa izatea.

Xabierren mundua, bestalde, etengabeko kultur bilakaeran dagoen mundua da. Xabierrek katedral gotiko handi egin berriak ezagutzen ditu eta Paris bezalako hiri handi baten (artean ere Europako hiriburua) eraldaketa ere ikusten du. Italiara joan eta han Erromako hiria ezagutzen du, Errenazimentuko sortoki eta erdigunea; izan ere, garai hartantxe ari da Europar barrena hedatzen mugimendu artistiko hori, Eredua klasiko-etera itzuli beharra defendatzen duena. Idazle eta filosofo humanisten obrak ere ikasi eta irakurtzen ditu, zeinek, Erdi Aroko pentsamolde teozentrikoari aitzia, gizakia jartzen baitute unibertsoaren erdigunetzat. Azkenik, inprentaren hedakuntza ere bizitzen du, funts-funtseko tresna izan baitzen kultura eta ideiak zabaltzeko.

Nafarroari dagokionez, Xabierrek Nafarroa Gaztelako koroari eratzekitzen zaion garaia eta ondorengo aldaketa politikoak bizitzen ditu haurtzaroan.

Xabier, gainera, misiolari izan zen Ekialdean. Han Europaz guztiz bestelako mundu bat ezagutu eta Ekialdeko kulturen berri jakin zuen: India, Indonesia, Japon eta Txina; eta bere erlijio handiak ezagutu ere bai: hinduismoa, budismoa, sintoismoa, konfuzionismoa eta abar, hangotarren bizia, bizimodua, ohiturak eta gizarte antolamendua errotik markatzen zituztenak. Hori dena Xabierrek bere kartetan eman zigun aditzera, gogo eta interes biziz irakurri zirenak Europa osoan.

Hemen aurkezten dugun liburu honetan, *Xabierren mundua*, garai liluragarri hura ikertzen da Santuaren bizitzaren bidez. Bidez bide jarraitzen gatazka bere jaioterritik, Xabierko gaztelutik, Japoneraino. Informazioa bi mailatan antolatua dago: **Xabierren bizitza**, zeinaren bidez Europa eta Asia ibiltzen ditugun, eta **Xabierren mundua**, zeinari esker garai hartako eta bere ibilbideko tokien bereizgarri handienak ezagutzen ditugun.

Liburu honi *San Francisco Javier* fundazioak eman zion lehenbiziko bulkua; biziki eskertzen diogu lehenbiziko materialak itxuratu zituzten irakasleen lana trebeki koordinatu izana.

Liburua lagungarri izanen ahal da ikasleek ikuskera zuzenagoa izan dezaten XVI. mendearen gainean eta Nafarroako historiako garrantzi handieneko irudi baten berri jakin dezaten.

Luis Campoy Zueco

Hezkuntza Kontseilaria

Edukien aurkibidea

Informazioa bi mailatan antolatzen da: Xabierren bizitza, batetik, kolore gorrian, zeinean Santuaren bizitzari segitzen zaion; eta Xabierren mundua, bestetik, kolore urdinean, zeinak bere garaiko eta bere bideko gertaera nagusiak errepatatzen dituen.

| | Xabierren bizitza | Xabierren mundua |
|---|---|---|
| 1 Xabierko gaztelua eta haren historia 9 | Xabierko gaztelua Gazteluaren historia Jaurerria Arte interesa | Erdi Aroko gaztelua Erdi Aroko erlijio artea |
| 2 Gazteluko bizilagunak 19 | Xabierren familia Xabier haurra gazteluan | Jasotarrak eta Nafarroa Gaztelako erresumari eratzekitzea Nafarroako gizarte antolamendua Erdi Aroan Nafarroako Erresumaren erdi Aroko instituzioak Monarkia autoritarioa eta feudalismoaren amaiera |
| 3 Parisen ikasle 29 | Parisera bidean Unibertsitatean Santa Barbarako kolejioan Xabier eta Erreforma Protestantea Eneko Loiolakoa | Unibertsitateak Katedralak Iruñeko katedrala XVI. mendeko erlijio krisia Erreforma Katolikoa. Jesusen Konpainia |
| 4 Italian 39 | Xabier Italian | Errenazimentua Humanismoa Inprenta Inkisizioa Italia XVI. mendean Erromako hiria |

| | | |
|---|--|--|
| <p>5</p> <p>Lehenbiziko bidaia: Indiara (1541)</p> <p style="text-align: right;">45</p> | <p>Indiara bidean (1541) Xabier Indian (1541-1545)</p> | <p>Aurkikunde handien arrazoiak Portugesen hedakuntza Asian Klima montzonikoa Asia gaur Hinduismoa Indiako beste erlijioak</p> |
|---|--|--|

| | | |
|--|---|---|
| <p>6</p> <p>Bigarren bidaia: Indonesiara (1545)</p> <p style="text-align: right;">57</p> | <p>Malakan Moluketan Ternaten</p> | <p>Malakako portua Indonesia gaur</p> |
|--|---|---|

| | | |
|---|---|---|
| <p>7</p> <p>Hirugarren bidaia: Japonera (1549)</p> <p style="text-align: right;">63</p> | <p>Goara itzuli eta Japonerako bidaia Japongo aldia Xabierren aztarna japonen</p> | <p>Sintoismoa Budismoa Arte japonesa Japon gaur</p> |
|---|---|---|

| | | |
|---|---|---|
| <p>8</p> <p>Laugarren bidaia: Txinara (1552)</p> <p style="text-align: right;">73</p> | <p>Goara itzuli Txinara bidean Xabierren heriotza Hiletak eta ehorzteak</p> | <p>Ingurune fisikoa Txinan Konfuzianismoa</p> |
|---|---|---|

| |
|---|
| <p>HITZ-ONDOA: Xabier gaur</p> <p style="text-align: right;">79</p> |
|---|

| |
|--|
| <p>Lau bidaien mapa</p> <p style="text-align: right;">82 - 83</p> |
|--|

| |
|---|
| <p>Bibliografia</p> <p style="text-align: right;">85</p> |
|---|

1 . Xabierko gaztelua eta haren historia

Xabierko gaztelua
Gazteluaren historia
Jaurerria
Arte interesa

Erdi Aroko gaztelua
Erdi Aroko erlijio artea

Xabierko gaztelua

Ezaugarri geografikoak

Xabierko gaztelua Nafarroako erdialdearen ekialdean dago, Aragoiko mugan, eta izen bereko ibaiaren ondoan. Gazteluaren kokalekuak oso ezaugarri geografiko eta estrategiko bereziak ditu, toki honi betidanik garrantzia eman diotenak.

Xabierko dorre nagusitik bistatzen den paisaia askotarikoa da:

- Iparraldean, Leireko mendia dago, beldurgarria, harri-gailurrak gaineko dituela, hegazti harraparien bizileku. Mendi magala, berriz, basoak hartua da: ameztiak, pinudiak eta bai, alderdirik ospelentan, pagadiak ere. Leireko mendia oztopo eta itxiera naturala da Nafarroako Mendialdearen eta Erdialdearen artean, hau da, Zaraitzu eta Erronkari bezalako Pirinio-haranen eta Zangozatik aurrerako lurralde zabal emankorren artean.
- Hego aldera, landa eta alor zabalak ikusten dira, Aragoi ibairantz poliki jaisten ari. Ibai honek Pirinioa du sorleku eta Pirinioko ibarretako elurretatik hartzen du ura: Canfranc, Hecho, Ansó eta Erronkari.
- Mendebal aldera, Izko mendia dago, eta urrutian, Elomendi eta Itzaga. Eremitan artadiak eta hariztiak tartekatzen dira labore alorrekin eta beste lehorreko alor batzuekin. Haizetoki gogorra da (*matacabras* eta *cierzo* dira haize nagusiak) eta maiz izaten dira lainoa eta lantxurda.
- Ekialdean, gaztelua jotzen duela, Aragoiko muga dago: Undues Lerdakoa, Uncastillo, Navardún inguruko lurrak, iraganeko hainbat gerra eta gatazkaren gertalekua.





Ezaugarri estrategikoak

Xabier, aitz arrazoiengatik, toki estrategikoa izan da beti:

- Pirinioko ibarren eta Nafarroako Erdialdearen eta Erriberaren arteko lotunean dago.
- Erronkariarren ardididea bertatik pasatzen da; hemendik eramaten zituzten erronkariarrek beren saldoak Bardeetara, negua ematera.
- 1223z geroztik Nafarroa eta Aragoiko erresumen arteko muga izan zen.
- Aragoi ibaiak, gazteluaren ondoan, aterabide ematen zion Pirinioko zur eta egurrari, ibaian behera almadiak osatuz eramaten baitziren.
- Santiago Bidean dago.
- Antzinaroko erromatar galtzada pasatzen zen bertatik.
- Hegazti migratzaileen pausalekua da.



Iturria: Gizarte-Zientziak, Geografia 3, DBH, Anaya, Madril 2003

Gazteluaren historia

1217ko agiri batean aipatzen da gaztelua lehenbiziko aldiz, nahiz eta badaitekeen gaztelua lehenagokoa izatea, X. mendearen bukaerakoa edo XI.aren hasierakoa.

Jatorrian, gaztelu hau segur aski begirale dorre soila izango zen, eta ondoren baizik ez zen gaztelu bihurtu, defentsa sistema korapilatsu batez hornitua.

Hasierako dorre horren inguruan (San Migel dorrea) Xabierko jaunek hainbat eraikin eta eremu sortu zituzten erdi aro guztian:

- **Jauregi Zaharra**, gazteluko jaunen bizilekua.
- **Unduesko dorrea**, ekialdean, gezi-leihoz eta matakanez hornitua, defendatzeko.
- Beste aldean, **Kristoren dorrea** eraiki zen, barrenean gazteluko kapera daukana.
- Gaztelua iparraldetik ixten zuela, eraikin bat ardandegi, bihitegi eta aziendarentzako ukuilutzat erabiltzen zen.
- XV. mende bukaeran, Juan de Jaso gaztelu-jaun zela, **Jauregi Berria** eraiki zen, Kristoren dorrearen ondoan. Alde honetako gela batean jaio zen gure Santua.

Omenaldiko dorrea edo San Migelen dorrea

Jauregi zaharra

Kristoren dorrea




Xabierko gaztelua

Nafarroa Gaztelako koroari erantsi ondoren (1512), Frantziskoren anaiek, Juanek eta Migelek, Nafarroako monarkia berrezartzeko saioan parte hartu zuten 1516an. Matxinada horrek huts egin zuelarik, Cisneros kardinalak matxinatuen gotorleku guztiak barreiatzeko agindu zuen, haien artean Xabierko gaztelua.

Gotorlekua babesten zuten kanpo harresiak lurreratu ziren, dorreak moztu, arroilak berdindu, matakanak kendu, eta gezi leihoak bozatu.

Horrela defentsa elementurik gabe, lehengo gaztelua etxe handi bihurtu zen.

Frantzisko lurreratze horren lekuko izan zen. 10 urte zituen.



Xabierko gazteluaren defentsak

Erdi Aroaren bukaera aldera, gazteluek defentsa sistema korapilatsua zuten, honako elementu nagusiez osatua:

- Dorreak, almenak, matakanak eta gezi-leihoak.
- Eraikinen inguruko barne harresi bat.
- Kanpoaldeko beste harresi bat, arroila batez babestua, Jauregi Zaharraren eta Unduesko dorrearen artean.
- Lau ate: lehenbizikoa kanpoko harresian, altxatzekoa; bigarrena barrengo harresian, eta zubi altxagarritzat erabiltzen zen; hirugarrenak gazteluko patiora ematen zuen; eta laugarrenak Jauregi Zaharrera.


Jaurerria

Xabierko jaurerria gure santuaren amaldeko familiarena zen. Bertan jaio zen, 1464. urtean haren ama Maria Azpilkuetakoa, leinu horren oinordekoa. Maria hori Juan de Jasorekin ezkondu zelarik, aurrerakoan berak hartu zuen Xabierko, Azpilkuetako eta Idozingo Jaunaren titulua.

Jaurerriak honako ondasunak zituen:

- Gaztelua
- Xabierko herria
- 10 km² baino zabalagoko lurraldea

Gaztelu-jabeen herentziek eta erospenek ondasun asko erantsi zizkieten hasierako ondareari, eta familiak toki gailena hartu zuen Nafarroako nobleen artean



Xabierko jaurerria

Jaurerri baten jabe eta aitoren seme baitziren, jasotarrek hainbat eskubide eta pribilejio zituzten, esaterako:

- Jaunaren agindupeko lurak lantzen zituzten nekazariei petxa eta zergak kobratzen zizkieten.
- Eliza parrokiaren jabe eta zaindari ziren.
- Tasa bat kobratzen zieten Erriberara bidean edo handik bueltan zetozen Erronkariko artaldeei.
- Tasa bat kobratzen ere zieten Aragoitik zura eramaten zuten almadiiei.
- Justizia partitzen zuten.
- Errota baten eta gatz-larrain batzuen jabe ziren.

Juan de Jaso hil ondoren, Santuaren anaiek parte hartu zuten inbasoreen kontrako matxinadan eta ondorioz familiaren ondarea arriskua handian egon zen. Matxinada horiek huts egin zutelarik, bi anaiek Karlos I. Espainiakoak eskainitako barkamena onartu, eta hura Nafarroako errege aitorturik, lehengo ondasun eta jabetzak berreskuratu zituzten.



Artaldeak Xabierren

Artaldeak eta gazta ziren ekonomiaren oinarria. Artaldeek gazteluko lurraldea zeharkatzen zuten Bardeara bidean, larre-aldia egitera, eta sari bat pagatu behar zuten jaten zuten belar-raren aldera: bildots bat eta bost sos. Baina kontrabandoan pasatzen baziren, gorderik alegia, orduan harrapatuz gero bost arditik bat kentzen zieten.

Arte interesa Arte interesa

1892an hasi ziren gaztelua zaharberritzeko lanak, Villahermosako XV. dukesak aginduta. Angel Goikoetxea arkitektoari eman zitzaion gazteluari lehengo itxura eta antzinako distira berriz emateko ardura.

1952an bigarren zaharberritu bat egin zitzaion, aita Rekondo zuzendari. Arroilak eta kanpoaldeko harresiak azaleratu zituen.

Gazteluak erdi aroko ezaugarriak ditu. Bi atek eta bi zubi altxagarrik gazteluko portada nagusira eramaten gaituzte, XV. mende bukaerako arku ojibal batez osatua. Haren goialdean hiru armari ageri dira: Erdian Xabierko herriarena eta alde bietan Jasotarrena eta Azpilkuetarena.

Arma patioan barrena, Kristoren kaperara eramaten duen eskailera biribil batera iristen gara. Kristoren kaperak gazteluko tokirik zirraragarriena da. XV. mendearen bukaerako pintura dekorazioa du, herioaren dantza gai nagusi duena.


Kristo gurutziltzatua, kaperako burualde zirkularrean esekita, estilo gotikokoa da, paretetako pinturen garai berekoa. Kondairak dioenez, Kristo honek odolezko izerdia bota zuen Frantzisko hil zenean.

Gazteluan, bestalde, aipagarriak dira sala handia delakoa, lehengo famili egonlekua; kapilauen sala, gaur museotzat erabilia, eta tradizioak dioenez santuarena zen gela.

Gazteluko eremuak gaur egun arte objektuak erakusteko erabiltzen dira. Aipagarria da santuaren eskuizkribu bilduma.

Gazteluaren ondoan basilika bat eraiki zen, arestian aipatu arkitektoak egina, 1901ean inauguratua. Bertako arku eta gangetan erdi aroko arte estiloak irudikatzen dira.

Anuntziazioko eliza parrokiala gaztelutik bereiz dago; XVIII. mendearen hasieran eraiki zen, erdi aroko beste baten gainean. Bertan Amabirjina eta Jesus haurraren zurlandu erromaniko bat dago eta San Frantzisko Xabierkoa bataiatu zuten ponteak.



Xabierko gazteluaren basilikako kanpoaldea



Xabierko gazteluaren basilikako barrenaldea



Erdi aroko gaztelua

Gaztelua, hasiera-hasieratik feudoen erdigunea izan zen erdi aroan: bilauek eta jopuek, arriskua sortzen zenean, aterpe hartzen zuten tokia. Gorune batean egoten zen, edo ibai bateko uhartetxo batean edo feudoko gunerik estrategikoenean.

Nobleen bizitza, gazteluetan, aspergarria zen. Gazteluko jaunak ehiza egiten zuen eta, ahal zuen guztietan, gerra. Izan ere, nobleek gerra zuten bizibide: auzokoei egiten zieten, edo beren goragoko jaunaren edo erregeren kanpaina batean. Horrez gain bere jaurerria gobernatu eta nekazarien jarduera ekonomikoak zuzentzen zituen. Nekazariak uztaren parte bat eta bere aziendaren ume berrietako batzuk ematen zizkieten.

Gerrarik ez zela, erregeak eta nobleek torneoak antolatzen zituzten.

Emakumeak brodatzen aritzen ziren, eta etxe barreneko bizitzari kasu egiten.



Xabierko kaperako Kristo gotikoa

Almadiak

Urtez urte almadieroek beren basoetako zura jaisten zuten Aragoi ibaiaren uretan behera. Ebrora iritsi eta Zaragozaraino segitzen zuten edo, batzuetan, Mediterraneoraino. Zura eta egurra garraiatzeko modu hau aspaldi-aspalditik erabili da eta oraintsu arte iraun du. Santuaren egunetan almadiak gaztelu ondotik pasatzen ziren Aragoi ibaian barrena eta Xabierko jaunak eskubidea zuen, bide-zortzat, almadiako enbor bat kobratzeko, gazteluaren ondoko uharkari egiten zioten kaltearen ordainetan.





Erdi aroko erlijio artea

Santiago Bidean barrena Erdi aroko kultur eta arte korrante europar nagusiak iritsi zitzaizkigun, hasi landako eliza erromaniko xumeetatik eta Hirietako katedral handietaraino.

Xabierrek haurtzaroan eta gaztaroan Nafarroan eta Europan ezagutu zituen monumentu eta arte lanetatik, batzuk estilo erromanikokoak ziren eta beste batzuk gotikoak, berriagoak, baina denak Erdi Arokoak.

Erromanikoa gizarte feudalaren artea izan bazen eta monasterioa gizarte hartako erlijio eraikin garrantzitsuena, gotikoa Beranteko Erdi Aroko gizartearen artea izan zen eta katedrala gizarte hartako eraikinik esanguratsuena.

Erromanikoko puntu Erdi aroko arkuaren eta kanoi formako gangaren ordeztu, gero eta korapilatuagoko arku ojibalak eta gurutzadurako gangak etorri ziren.

Erromanikoko horma lodi astuna aienatu eta beirate gotikoak agertzen dira, hartarako kanpoaldeko kontrahormak erabiltzen ziren. Xabierrek parisko katedralen handiostasuna begiesteko aukera izan zuen eta leiho eta arrosaleihoetako beirateen koloreen aurrean miraz gelditu zen.

Eliza barrenaldeetan ere gotikoak beste nobedade batzuk ekarri zituen: Pantokrator beldurgarriaren irudiaren ordeztu, Kristo gurutziltzatu humanoago eta onberago baten irudia azaltzen da eta Erromanikoko amabirjina hieratikoaaren ordeztu amabirjina irribartsu bat agertzen da.



Amabirjina eta Jesus haurra
Anuntziatioko eliza parrokiala

JARDUERAK

1. Nafarroako mapa batean koka itzazu Ezaugarri geografikoak atalean ageri diren elementu geografikoak.
2. Javieradak zure herri edo hiritik Xabierko gazteluraino egiten duen bidea marraztu, ibilbideko herriak markatuz.
3. Konpara ezazu Xabierko Kristoa Kristo erromaniko batekin eta esan zein diren bien arteko diferentziak.
4. Anuntziatioko elizan Amabirjina eta Jesus haurraren zurlandu erromaniko bat dago. Esango al diguzu amabirjina erromaniko batek zer ezaugarri dituen?
5. Xabierko basilikako kanpoaldearen argazkian, esan zein elementu arkitektonikok gogorarazten duten estilo erromanikoa eta zeintzuek estilo gotikoa.

2. **G**azteluko bizilagunak

Xabierren familia
Xabier haurra gazteluan

Jasotarrak eta Nafarroa Gaztelako erresumari eratzekitzea
Nafarroako gizarte antolamendua Erdi Aroan
Nafarroako Erresumaren erdi Aroko instituzioak
Monarkia autoritaria eta feudalismoaren amaiera

Xabierren familia

Frantzisko Xabierkoa 1506ko apirilaren 6an jaio zen Nafarroako noble familia batean. Familia horretan lau leinu elkarretaritzen ziren, lauak garrantzi eta eragin handikoak XV. mendeko bigarren erdiko Nafarroako egoera politiko korapilatuan.

Amaldeko aiton-amonak

Frantzisko Xabierkoaren amaldeko aiton-amonak, **Azpilkuetarrak** eta **Aznarez de Sadatarrak**, Nafarroako noblezia militarrekoak ziren.

- **Azpilkuetarrak** kapare familia bat ziren eta Azpilkuetan (Baztan) dorre-jauregi baten eta etxaldearen jabe ziren. Noblezia xumeko kide ziren eta Nafarroako Erdialdeko hainbat tokitara barreiatu eta finkatu ziren. Martin de Azpilkueta, leinu honen oinordekoa, Xabiererra ezkondu eta Xabierko jaun bihurtu zen.
- **Aznárez de Sadatarrak** Goi nobleziako kide ziren. Xabierko gazteluaren eta jaurreriaren jabe ziren XIII. mendearen erdialdeaz geroztik. Familiaren ondarea Maria eta Juana bi ahizpen eskuetara etorri zen, zeinak bata bestearen ondotik aipatu baztandar kapare Martin de Azpilkueta harekin ezkondu ziren.



Martin

Juana

Aitaldeko aiton-amonak

Frantzisko Xabierkoaren aitaldeko aiton-amonak, **Jasotarrak** eta **Atondotarrak**, zerbitzuko nobleziaren kide ziren.

Jasotarrak jatorriz Nafarroa Behereko familia ziren. Administrazioaren zerbitzuan sartutako kapareak ziren eta noblezia xumeko kide. Arnaldo Perez de Jaso Iruñean finkatu zen eta han, bere emazte Gillermina de Atondoren aitarren laguntzarekin, goi-kargu bat eskuratu zuen Kontuetako Ganberan. Hortaz, aberastu eta goi-nobleziako kide egin zen.



Arnaldo

Gillermina



Juan

Maria

Gurasoak

Nobleziako familia hauetatik heldu ziren Frantzisko Xabierkoaren gurasoak: Juan de Jaso eta Maria de Azpilkueta.

Juan de Jasok Bolonia (Italia)ko unibertsitatean ikasi zuen eta zuzenbidean doktoretu.

Nafarroara itzulirik, garrantziko karguak izan zituen erresumaren administrazioan: Kontuen Ganberan, Errege Gortean eta Errege Kontseiluan. Juan III.a Albret eta Katalina de Foixaren Nafarroako azken errege-erreginen laguntzaile leiala izan zen eta jarlekua izan zuen gortetan nobleziaren ordezkari.

1483an Xabierrera ezkondu zen, Maria de Azpilkueta, leinu horren oinordekoarekin eta hortaz Xabierko gaztelujaun eta jaurreriaren jabe bihurtu.

Senideak


Juan de Jasok eta Maria de Azpilkuetak bost seme-alaba izan zituzten: Magdalena, Ana, Migel, Juan eta Frantzisko.

Magdalena, Isabel katolikoa Gaztelako erreginaren dama izan zen. Frantzisko sortu baino bi urte lehenago Gandia (Valentzia)ko Klarisen komentuan moja sartu zen eta denborarekin hango abadesa bihurtu.

Ana, bigarren arreba, Beirera ezkondu zen Diego de Ezpeleta hango jaunarekin, Frantziskok sei urte zituela. Haren ilobetako bat, Jeronimo, Indian misiolaria izan zen bera ere.

Anaia Migel, Frantzisko baino hamaika urte zaharragoa eta Xabierko gaztelujaun izatekoa, partaide garrantzikoa izan zen gaztelau okupazioaren kontrako erreboltetan.

Juanek, zeinak amaren deitura, Azpilkueta, hartu zuen, armagizon izan zen eta anaia Migelekin batera Nafarroaren okupazioaren kontra aritu zen.



Frantzisko

Magdalena

Ana

Migel

Juan

Xabier haurra, gazteluan

Frantzisko, Juan de Jaso eta Maria de Azpilkuetaren bost seme-alabetako gazteena, 1506ko apirilaren seian jaio zen Xabierko gazteluaren mendebal hegaleko gela batean, Jauregi Berria deitzen zioten hartan.

Don Migel de Azpilkueta erretoreak, Maria amaren lehengusuak, bataiatu zuen haurra gazteluaren ondoko Santa Mariako eliza parrokiarean.

Orduan ohitura zenez, inude batek eman zion esnea.

Aita gehienetan lekturik egoten zen. Erresumako administrazioan zituen karguek Iruñean egotera behartzen zuten, edo enbaxadore eramaten Gaztela eta Frantziara. Horregatik amak izan zuen haurra heztearen ardura gehiena.

Lehenbiziko eskola gazteluan hartuko zuen, eta ez zen gaztelutik atera hemeretzi urtetan bere lurra alde batera utzi zuen arte.

Hurtzaro horretako gertakari lazgarriena, dudarik gabe, Nafarroaren inbasioa izango zen, Fernando Katolikoak bere armada bidali zuenean (1512), eta familiarentzat horrek ekarri zituen ondorio latzak.

Aita Juan de Jasok errege berriarekin kolaboratu bazuen ere, hil zelarik Migel eta Juan anaiak, Nafarroako dinastia legitimoaren aldekoak, bi aldiz altxatu ziren (1516, 1521) inbasoreen kontra. Matxinada horien ondoren Cisneros kardinalak matxinatuen gaztelu guztiak lurreratzeko agindu zuen. 1516ko maiatzean Frantzisko Xabierkoak, hemeretzi urte zituela, aitak egin bezala Parisko unibertsitatean ikasketak egiteko alde egitea erabaki zuen.

Azkenik, 1524an, Frantziskoren anaiak Espainiako Karlos I.ak eskainitako barkazioa onartu eta jaioterriko gaztelura itzuli ziren. Hurrengo urtean Frantziskok, hemeretzi urte zituela, aitaren urratsei jarraiki eta Parisko Unibertsitatera ikasle joatea erabaki zuen.



Frantzisko



Jasotarrak eta Nafarroa Gaztelako erresumari eratxekitzea

Fernando Katolikoak, aitzakia harturik Nafarroak ez ziola Aita Santuari laguntzen Frantziarekiko gerran, Albako dukea bidali zuen Nafarroa hartzera, baskongadetako soldadoz (Inazio Loiolakoa haien artean) osatutako armada batekin. Beaumondarren bandoko nafarren laguntzarekin, erresistentzia gutxirekin eskupe-ratu zuten Nafarroa. 1512ko uztailaren 25ean Iruña errenditu zen, foruak errespetatuko zizkiotelako pro-mesaren pean.

Frantzisko Xabierkoaren familia agramondarren bandokoa zen, inbasoreen kontrakoa eta Foix-Albret dinastia legitimoaren aldekoa.

Juan de Jaso, Frantziskoren aita, Nafarroako errege-erreginen zerbitzuko pertsonaiarik handienetakoa izan zen. Katalina de Foix ezkondu behar zenean, Juan de Jaso argi atera zen senar gaztelau baten alde.

Nafarroarentzat Gaztela-Aragoiekin ezkontza bidez batzea soluziorik hobereana zelakoan. Onartu zuen, halere, Katalina Juan de Albretekin ezkontzea eta leialki egin zien zerbitzu, administrazio goiko karguetan.

Nafarroa eta Gaztelaren zenbait hitzarmen negoziatu zituen eta Gaztelaren inbasio baten mehatxua sartu zenean, bi aldiz joan zen enbaxadan Gaztelako Gortera, inbasioa galarazi beharrez.

Inbasioa eta konkista gertatu ondoren (1512. urtea) Juan de Jasok Errege Kontseiluko bere lehengo karguari eutsi zion agintari gaztelau berrien agindupean. Onartu zuen egoera berria eta Fernando katolikoa errege berriari leial izateko zina egin ere bai. 1515eko urriaren 15ean hil zen, Frantziskok bederatzi urte zituela.

Migel eta Juan semeek ez zioten segitu Juan de Jasoren jarrera politikoari; aitzitik, armak hartu eta gaztelauen okupazioaren kontrako buru aritu ziren.

1516ko agramondar konspirazioan parte hartu zuten, Nafarroako tronua Foix-Albretentzat berreskuratu nahirik. Saio honek huts eginik, ondorioz Xabierko Gazteluaren defentsak suntsitu ziren: kanpoaldeko harresiak, zubia, dorreak, almenak eta matakanak kendu.

Zigor horrengatik ere, ez ziren Migel eta Juan iritziz aldatu eta 1521ean berriz altxatu ziren gaztelau okupazioaren kontra, Gaztelako tropek Hondarribiko gotorlekuan setiatuak zeudela, ohorez errenditu ziren 1524ean. Karlos I. Espainiakoak eskainitako barkamena onartu eta Nafarroako errege aitortu zuten.

Lehengo ondasunak eta jabetzak itzuli zitzaizkien guztiei. Migelek familiaren ondasunak eskuratu zituen. Juani Kontuen Ganberan postu bat agindu zioten, eta postu horri zegokion soldata kobratu zuen bizi zen artean, nahiz eta inoiz ez zuten benetan izendatu.



Nafarroako gizarte antolamendua Erdi Aroan

■ Nobleak

Nobleak gizartearen talde buruzagia ziren, lurra-
ren jabeak, bizibidez gerrariak eta erregeari
leialtasun zinez lotuak.

Haietako batzuk Erregek kargudun egiten
zituen gobernuan eta defentsaren antolamen-
duan. Horiek **goi-noblezia** ziren eta gorteetan
ordezkariak izateko eskubidea zuten.

Jaun handiez beherago, **kapareak** zeuden,
zuzenbidez nobleak baina ondasunez goikoak
baino askoz ondasun gutxiago zituztenak.
Noblezia xumea osatzen zuten.

Erregeri zer zerbitzu ematen zioten, horren
arabera bi noblezi mota bereizten dira; noblezi
militarra eta zerbitzukoa.

Noblezia militarra jatorriz gerlari-familiak ziren,
defentsarako egiturari karguak zituztenak.
Halakoa zen Martin de Azpilkueta, Frantzisko
Xabierkoaren amaldeko aitona.

Zerbitzuko nobleziak, berriz, erresumako admi-
nistrazioan edukitzen zituen karguak. Halakoak
ziren Juan de Jaso eta Arnaldo Pérez de Jaso,
Frantzisko Xabierkoaren aita-aitonak

■ Kleroa

Nobleekin batera gizarte talde agintaria
ziren. **Goi kleroa** zegoen, alde batetik, apez-
pikuak, komentuburuak eta abar, familia
nobleetakoak, elizaren ondasun handiak
kudeatzen zituztenak; eta **beheko kleroa**,
bestetik, pobrea eta herri xumearen kidekoa.



Goi mailako nobleak



Kaparea

Apezpikua



■ Burgesia

Hirietan bizi ziren eta, merkataritzan eta artisau lanetan aritzen ziren; administrazioko kargu espezializatu asko ere beren esku edukitzen zituzten (eskribauak, abokatuak, notarioak, eta abar); zenbaitetan egoera hori aprobetxatzen zuten gizarte eskalan gora egin eta noble tituluak ere eskuratzeko.

Familia burges handiek hiri handienak beren eskuko edukitzen zituzten eta karguak izaten zituzten erresumako gorteetan, beren udalen ordezkari.

■ Nekazariak

Nafarroako biztanle gehienak nekazariak ziren eta aurreko mendeetan bezalako bizimodua izaten segitzen zuten, hainbat errenta pagatu behar zioten jaun baten agintepean.

XV. mendean Nafarroako anitz herrik eta ibarrek kapare tituluak eskuratu zituzten. Hortaz, hango bizilagunak legez kapare edo franko ziren aurrerakoan, baina ez ziren horratik bizimoduz ez bizibidez aldatzen.



Merkatariak



Monjea



Nekazaria




Nafarroako Erresumaren erdi Aroko instituzioak



ERREGEA

Botere guztiak bere esku ditu eta orotariko gaietan erabakiak hartzen ditu. Erresumako instituzio guztiak haren zerbitzuan daude eta haien bitartez agintzen eta eragiten dio gizarteari.

Instituzio horien artean:






Monarkia autoritaria eta feudalismoaren amaiera

XV. mendeak estatu modernoaren sorrera ikusi zuen. Estatu honen ezaugarria boterea erregeren eskuetan kontzentratu egotea da. Horri monarkia autoritaria deritza. Erdi Aroko disgregazio politiko eta militarren aurrean, Estatu antolatzeke era berria sortzen da, botere kontzentrazioa ez ezik geografiaz edo historiaz kideko diren lurraldeak bateratzea ezaugarri dituena.


Monarkia autoritaria ez da kasualitatez sortzen. Zirkunstantzia ekonomiko, sozial eta politiko berrien ondorio zuzena da.

Horrela, kapitalismo deritzan Europako sistema ekonomiko berriak nahitaezkoa du botere sendo eta kontzentratua, herri bateko antolamendu industrial eta komertziala gidatu ahal izateko. Babes hori erregek baizik ezin eman zezakeen. Eta era berean estatu baizik ez zen gauza garai hartako ezegonkortasun soziala menderatzeko.

Monarkia autoritaria Frantzia, Ingalaterra, Portugalen eta Espainian soilik ezarri zen sendoki. Espainian, Gaztela eta Aragoiko erresumak errege bakarraren pean batu ziren. Ez Alemaniak ez Italiak, aldiz, ez zuten lortu lurraldez ez politikaz batzerik.



Europa XV. mendean



Omenaldiko dorrea edo San Migel dorrea

JARDUERAK

1. Iker ezazu zer aldaketa sozial, politiko eta ekonomiko gertatu ziren XV. mendean, sistema feudala bukatu eta Monarkia autoritarioari hasiera eman ziotenak.
2. Bila ezazu liburutegian 1512an Nafarroa gertatu zenari buruzko informazioa, eta gogoeta egin gertatuaren garrantziaz.
3. Jar itzazu ondorengo testuan falta diren hitzak:

Monarkia autoritaria erortzetik XVIII. mendeko iraultzetaraino irauten duen sistema politiko, sozial eta ekonomikoa da. Politikaz den bezainbatean, du ezaugarri: alderdi sozialetanen arabera banaketa; eta ekonomiari dagokionez,

3. Parisen ikasle

Parisera bidean

Unibertsitatean

Santa Barbarako kolejoan

Xabier eta Erreforma Protestantea

Eneko Loiolakoa

Unibertsitateak

Katedralak

Iruñeko katedrala

XVI. mendeko erlijio krisia

Erreforma Katolikoa. Jesusen Konpainia

Parisera bidean


1525eko irailaren hasieran Frantzisko, hemeretzi urterekin, Iruñera abiatzen da; han apezpikuak apaiz tontsura ematen dio. Izan ere, Xabierrek, familia nobleko seme gazteena izaki, elizgizon karrerarako asmoa zuen, gero batean kalonje izateko Iruñeko katedralean.

Iruñean Pariserako bide luzean hastera zihoan ikasle talde txikiarekin bildu zen. Hondarribiko mugatik Frantzian sartu eta Bordele, Poitiers, Tours eta Orleansen barrena Senako hirira iritsi ziren noizbait ere.

Parisko katedral gotikoak, Notre Dame famatuak, bere nabe garai harrigarriekin miraz utzi zituen nafar gazteak; ez zuten gutxiago miretsi Sainte Chapelleko argitasun koloretsua, non hormen lekuan beirateak zeuden.

XVI. mendeko Paris hura, Frantzisko Xabierkoaren bizileku izanzen zena, hiri harresiduna zen, nahiz hasia zen ordurako eraldatzen. Hiru auzo zituen: La Cité, bat, Sena ibaiaren gaineko uhartean, hiriaren alderdi zaharrena zen eta bertan Notre Dame, Sainte Chapelle eta Errege jauregia bezalako eraikin inportanteak zeuden; beste bat Quartier latin delakoa zen, Auzo Latinoa alegia, non unibertsitatea eta unibertsitateko egoitzak zeuden, eta bai kolejoak eta luxu handiko komentuak ere; azkenik, Hiria, bere ostatu, denda eta bizitexe arrandiosoekin.

Xabier, Parisko egonaldian, Auzo Latinoan bizi zen; horrela esaten zioten latina zelako auzoko hizkuntza ofiziala. Auzo hartan 4.000 ikasle bizi ziren, 39 herritatik etorriak.



XIII. mendeko Parisko plano



Parisko unibertsitatea denetako entzute-tsuena zen Europan. Zaharrena zen, irakasle hoberenak zituen eta ikasleak mundu guztitik zetozen. Salamanca eta Alcalako irakasle finenak han ikasitakoak izaten ziren. Orduko Paris hura Mendebalde kristaua astintzen zuten tinkakultural, sozioekonomiko eta erlijiosoan erdigunea zen.

Parisko unibertsitateak berrogeita hamar kolejio baino gehiago zeuzkan, denak agintebakarraren menpekoak baina jardunbidean zein bere eskukoak; bakoitzak bere errektoregoa zuen, bere irakasle taldea, bere azterketak eta bere tituluak. Errektore nagusia Sorbonako kolejioan bizi zen eta beste kolejioen gaineko eskudantzia zuen.

Lau Fakultate zeuden: Teologia, Zuzenbide Kanonikoa, Medikuntza eta Filosofia edo Arteak. Fakultate batean sartu aurretik giza-jakintzako ikasturte bat egin behar zen. Teologiako ikasketak Sorbonako kolejioan ematen ziren, Nafarroakoan (Frantziako erregeek dirutua) eta Dominiko eta frantziskotarrenean.

Parisko unibertsitateak zituen 4.000 ikasleetatik 38 nafarrak ziren.



Paris XVI. mendean
La Cité uhartea

Santa barbarako kolejioan

Gure gaztea barne eraentzan sartu zen santa Barbarako kolejioan, aski kolejio berria, eta bat gehiago izan zen bertan ikasten zuten bostehun ikasleen artean (erdiak kanpo eraentzan). Bost urtez han arituko zen Giza Jakintza eta Arteak ikasten. 1530ean eskuratu zuen "Arteetako Maisua" titulua, bizi artean erabiliko duena: Maisu Frantzisko deituko diote maiz. Ondoren teologiako doktoretza hasi zuen, eta horrekin batera, sei urtez, filosofia irakasten aritu zen Beauvaisko kolejioan.

Ikasleak hirutarikoak ziren: kamarista direlakoak; horiek pagatu egiten zuten ohe eta mantenu aldera. Bekadunak; horiei kolejioak laguntza ematen zien. Eta azkenik famuluak; horiek ikasle zein irakasle dirudunen mirabe aritzen ziren ikasketaren kostua berdindu ahal izateko. Xabierrek, noblea zelarik, beste ikasle nafar bat hartu zuen; Migel de Landibar, Iruinsemea.

Gaur egun gaitz da da imajinatzen zer bizimodu latza eta pobrea izaten zuten ikasle horiek, alegia monje batzuen. Ikasgeletan ez aulki ez mahairik ez zen izaten. Ikasleak lurraren gainean esertzen ziren, malkarrez estalita, neguan hotza pixka bat leuntzeko eta udan freskura pixka bat emateko.


Ikasleen janzki nagusia jipoia izaten zen, eta gainera kasaka, belauen azpian lotutako bonbatxoak, mediak, gerrian lotutako toga edo sotana bat eta bonetea.

Eskolak egunean bederatzi ordu irauten zuen, lezio, errepikazio, eztabaida eta abar kontatuta. Irakaskuntza hark, Luis Vivesek ere kritikatu zuenez (Xabier baino lehentxoago ikasi zuen berak Parisen) memorizaleegia eta formalistegia zen, beste akats askoren artean.

Parisko bizitza orduan zalapartatsua eta batzuetan indarkeriaz betea zen, batez ere Auzo latinoan, Unibertsitatea osatzen zuten 50 kolejio haiek pilatzen ziren auzoan.

Kolejioen artean lehiak eta bekaitzak izaten ziren eta horren ondoriozko erronka-liskarretan ez zen aldian behin hildakorik. falta izaten. Parisko Erregezko Gorteak mehatxu ere egin zien behin kolejio haiei, bereziki Nafarroakoari eta Santa Barbarakoari, zigor latzak jarriko zizkiela ez bazuten debekatzen kolejioen barreranean josteta eta fartsa eskandaluzkoak ospatzea.

Gure nafar gazteak oso ederki laketu zuen Parisko bizimoduan. "Hemen denak adiskidetzen zaizkit", idatzi zion Xabierrek bere anaia Joani. Egia esan, Parisko egonaldia hasieran Xabierren kezka ez ziren oso-oso espiritual horietakoak: gehienbat hiri handi batek bere adineko eta bere mailako gazte bati eskaintzen zizkion dibertsio aukera ugariak aprobetxatzera lehiatu zen.



Sainte Chapelle eta Justizia Jauregia, lehengo Errege jauregiaren orubean eraikia

Xabier eta Erreforma Protestantea



Santa Barbarako Kolejioren ataria

Xabier Parisen ikasle zegoenerako, hasia zen luteranismoa zabaltzen Frantzian. Gogora dezagun Nafarroako erregina Margarita, errege Frantzisko I. Frantziakoaren arreba, protestantea zela. Unibertsitatean Nikolas Cop errektoreak eta bere adiskide Juan Calvinok bultzatu zuten mugimendu protestantea. Biak ihes egin beharrean gertatu ziren, kartzelatik eta bai agian urkabetik ere eskapo egiteko. Eta ez haiek bakarrik. Ihes egindakoen artean Santuaren ahaide bat ere egon zen.

Eneko Loiolakoa

1529an Xabierrek Eneko Loiolakoa ezagutu zuen Parisen, bera baino hamasei urte zaharragoko ikasle gipuzkoarra, Iruñeko setioan herrendua, Xabierren anaiak etsai zituela hartutako zaurien ondorioz. Ez haren adinak, ez haren gorpuzkerak ez haren hizketa modua ez haren ideia politikoak ez ziren Xabierri gustatzeko modukoak eta hasieran begitan hartu omen zuen.

Eneko horrek, ordea, jakin zuen Frantzisko bereganatzen. Diruz ere lagundu zion, baina batez ere "konpainia gaixto-etatik" hastandu eta herejeekin tratuan ibiltzea galarazi. Hala aitortzen du Xabierrek karta batean.

Enekok erakutsi zion Xabierri garrantzi gehiago zuela bizitza Jainkoari ematea ezen ez lanbideko arrakasta, fama, boterea eta loria bilatzea. Honela esan zion hitzez hitz: "Zertarako du gizonak mundu osoa irabaztea, arima galtzen badu?" (Mateo, 16, 26).

1533an Xabierrek Jainkoa serbitzea erabaki eta Inazioaren ikasle egin zen, beste gazte batzuekin batera: Pedro Fabro saboiarra, Simon Rodrigues portuguesa eta Diego Laínez, Nicolás Salmerón eta Nicolás Bobadilla gaztelauak. Montmartreko kaperan egin zituzten botoak (1534ko abuztuaren 15ean). Jesusen Konpainiaren ernamuina izan zen hura, Jesuiten ordena berria, 1540an Paulo III.a aita santuak onetsia.



Unibertsitateak

Erdi Aroko hirian gure egunetara iritsi den instituzio bat sortzen da: unibertsitatea. Unibertsitatea, hasieran, irakasle elkarte bat edo ikasle eta irakasle elkarte zen eta apezpiku eskolen zorrotasunetik askatu nahian sortu zen, haietan apezpikuek bere irizpideak inposatzen baitzituzten.

Jeneralean unibertsitate batek lau fakultate izaten zituen: Arte eta Letrak, Zuzenbidea, Medikuntza eta denetan inportanteena: Teologia.

Fakultate bakoitzak dekanu bat hautatzen zuen; Arte eta Letretakoa izaten zen, hori baitzen ikasle gehien izaten zuen fakultatea; dekanu horrek errektore titulua hartu eta unibertsitatearen ordezkari aritzen zen.

XIV. mendetik aurrera, unibertsitate bakoitzaren ondoan kolejoak agertu ziren, ikasleentzako bizileku gisakoak. Ikasle horiek gero eta gehiago laikoak ziren. Latina zen unibertsitateko hizkuntza.


Unibertsitateak berehala espezializatu ziren: Bolonia zuzenbide ikasketengatik famatu zen; Montpellier eta Salerno medikuntzan gailendu, eta Parisko Sorbona teologian.

Beste unibertsitate leku handi batzuk: Salamanca, Gaztelan; Lerida eta Perpignan, Aragoien, eta Oxford, Ingalaterran.

Iturria: *Ciencias Sociales, Geografía e Historia 2, ESO, Vicens Vives, La Rioja, 2003*



Salamancako unibertsitatea





Katedralak

Katedrala Erdi Aroko hiriaren erdigune geografiko eta espirituala zen. Bertara jendea ez zen soilik elizkizunetara joaten; arazo politikoak eztabaidatzera ere bai.

Denbora luzea eta dirutza handiak behar ziren katedral bat eraikitzeko. Herritarrek diru emaitzak egiten zituzten katedralak finantzatzeko eta hiriak elkarrekin lehian aritzen ziren zeinek eraikiko katedralik ikusgarriena.


Katedral gotiko asko XII. mendean hasi eta XIV.ean edo bai XV.ean ere bukatu ziren. Horregatik, maiz, erromanikotik hasi eta gotikorainoko garai guztietako osagaiak ageri izaten dituzte.

Eliza gotikoak eliza erromanikoak baino askoz argitsuagoak dira, kruzeriako gangak, arku ojibalen gainean eraikiak, egiteko teknikari esker. Horrela, barrenaldeko karga pilastrek jasotzen dute eta kanpoaldekoa, berriz, ostiko arkuek eta kontrahormek. Sistema horretan, ez da behar lehen bezalako horma lodirik eta leiho eta arrosa leiho handiak ireki daitezke.

Iruñeko katedrala

Iruñeko katedralak, Xabierrek ezagutu zuen denboran, fatxada erromanikoa zuen oraindik, bi bao, bi dorre eta kolorezko beiratedun arrosa-leihoa.

Eliza erromanikoaren barrenaldea 1390an erori zen eta ondoretsuan estilo gotikoan berreraikitzen hasi zen. Lanak Xabier jaio baino bost urte lehenago bukatu ziren.



Parisko Nôtre Dame katedrala



XVI. mendeko erlijio krisia

XV eta XVI. mendeetan aita santuen gortea gehiago arduratzen zen munduko arazoez izpiritukoez baino. Aita santuak handiki munduzaleak izaten ziren eta kontu gutxi egiten zuten sinestunen problema erlijiosoez.

Hiru ziren, laburki, eliza katolikoak garai hartan zituen alderdi negatiboak:

- Aita santuen gorteko arrandia eta aberastasuna, kristauak behar duen espiritu pobrezizalearen kontraesanean.
- Goiko eta beheko kleroaren arteko diferentzia handiak. Behekoak oso eskola gutxi eta baliabide eskasak izaten zituen.
- Eliz kargudunen bokazio eskasa. Handiki familietako seme premuak titulua eta lurrak hartzen zituen herentzian, eta gainerako semeetako askok eliz karguak erosi behar zituzten, errentekin beren estatus sozial eta ekonomikoari eusteko. Ez zuten bokaziorik izaten eta kontu gutxi egiten zuten beren eginbideez.

Erreforma Protestantea

Martin Lutero (1483-1546) Alemaniako monje agustindarra zen, Teologiako irakaslea Wittenbergeko unibertsitatean. Han predikatu zituen induljentzien kontrako bere 95 tesi famatuak. Induljentziak purgatorioko zigorrak arintzeko orazioak ziren, diru truke egiten zirenak. Aita Santuak dominikoen ardurapean utzi zituen induljentziak. Luterok gogor salatu zuen orazio-saleroste hori eta horregatik hartu zuen eskumikua.

Luteroren dotrinak fedearen bidezko justifikazioa du oinarri. Hartara, giza borondatea, jatorrizko bekatuaz kutsatua, ez da gai izaten gaizkiari buru egiteko eta Kristorenganako fedeak baizik ez dezake gizakia salba. Hortaz, Luterok dotrina katolikoaren printzipio oinarritzakoetako bat ukatzen du: obra onen balioa.

Luteroren dotrinak muturreraino eramane zituen Jean Calvinek, Ginebran bizi zen intelektual frantsesak. Predestinazioan oinarritzen du bere dotrina: denboraren hasieratik gizakia predestinatua dago salbatu edo kondenatzeko. Fede iturri bakarra Biblia izanen da baina fede hori predestinatuek baizik ez dute jasotzen.



Martin Lutero gaztea, 1523-1524 inguruan



Burgesia eta Erreforma Protestantea

Erreforma Protestantek arrazoi erlijiosoak izan zituen abiagarri, baina bai bestelakoak ere: politikoak eta ekonomikoak, bereziki Alemanian. Han, izan ere, handiak maiz asko Karlos V.aren inperio katolikotik alde egiteagatik eta Elizaren ondasun handiez jabetzeagatik egin ziren protestante, eta bestetik komertzianta eta bankagizonek hobeki etsitzen zuten beren jarduerari zuzen eta ohorezko irizten zion erlijio batean.

Zeren garai hartan negoziotan aritzen den burgesia agertzen da Europan eta aurrezki eta mailegu lanetan aritzeko lehenbiziko bankuak sortzen dira. Jarduera horiei lukureria kutsua ikusten zitzairen, tradizioz juduen lana izan baitzen, eta beraz gaitziritza zeuden. Besteak beste, horrek ere esplikatzen du zergatik berandatu zen Espainian burgesiaren garapena: burges aberastuek, izan ere, lurrak eta tituluak erosi, aitoren semetu, eta utzi egiten zieten negozioei.

Erreforma Katolikoa. Jesusen Konpainia

Eliza Katolikoaren barrenean erreforma mugimendu bat sortu zen, izandako abusuak desegin eta sinestunengandik hurbilagoko erlijio politika berria bideratzeko. Mugimendu honi Erreforma Katolikoa deritza eta haren defendatzaile handia Jesusen Konpainia izan zen, San Inazio Loiolakoak fundatua.

Militar bizimodua utzi eta urte askotako ikasketak egin ondoren, San Inaziok erlijio ordena bat fundatu zuen, eta Aita Santuaren esku jarri.

Ordena berri hau besteak ez bezalakoak zen: haren kideak arreta handiko prestakuntza jaso eta kontu handiz hautatzen ziren; barne diziplina gogorra zuten eta Aita Santuari obeditzeko zina egiten, "laugarren botoa" delakoa.

Jesuitek honako ekintza hauek hartu zituzten beren lanaren ardatz:

- Ejertzizio espiritualak erabiltzea bizitzari erlijio esangura aurkitzeko bidetzat.
- Protestantismoaren kontrako borroka dialektikoa.
- Klase pribilegiatuen irakaskuntza.
- Beste kontinenteetan misiolari lana egitea. Brasil eta Paraguayko misioak izan ziren inportanteenak, eta bai San Frantzisko Xabierkoak Ekialde Urrutian egin zuen lan pertsonal ikaragarria ere.

Jesusen Konpainiako hainbat kidek paper garrantzitsua izan zuten Trentoko kontzilioaren garapenean, Erreforma Katolikoaren pieza gakoa.

1540an Paulo III. Aita Santuak Jesusen Konpainia onetsi zuen bula baten bitartez. Oso azkar hedatu zen: San Inazio hil zenerako (1556) jesuitak mila baino gehiago ziren.

Bere jardunaren ikur-hitza hauxe zen: "Jainkoaren aintza goratzeko."



Parisko metro geltoki bat

JARDUERAK

1. Parisko XIII. mendeko mapan, seinala ezazu zein den Sena, non dagoen La Cité uhartea, Nôtre Dame eta Auzo Latinoa.
2. Deskribatu eta marraztu ezazu Nôtre Dameko argazkian ageri diren arkitektura gotikoko elementuak, Katedralak delako testuan ere aipatzen direnak.
3. Deskriba itzazu Iruñeko katedralaren argazkian ageri diren arkitektura elementuak.
4. Esan zein arrazoi zituen Xabierrek Inazio Loiolakoaren ikasle bihurtzeko.
5. Aipa itzazu laburki orduko elizaren problemak.
6. Esprika ezazu zer egitura zuen orduko unibertsitate batek eta esan zer ikasketa egin zituen Xabierrek.

4. Italian

Xabier Itarian

Errenazimentua
Humanismoa
Inprenta
Inkiszioa
Italia XVI. mendean
Erromako hiria

Xabier Italian

1536ko azaroan, Xabier oinez joaten da Veneziara bere lagunekin, han Inazio Loiolakoarekin bat egin eta Lur Santura elkarrekin joateko asmoan. Bi hilabeteko bidearen buruan, iritsi ziren noizbait ere Veneziara eta beren maisuarekin bildu. Lur Santura joateko ontziak, ordea, udan ateratzen ziren Veneziatik. Xabier Sendaezinen Eritetxean aritu zen eriei lagun egiten.

Anartean, Erromara joan ziren Pablo III.a aita santuaren bedeinkazioa eskatzeko. Veneziara itzulirik, Turkiak gerra deklaratu zion hiri horri eta hortaz Jerusalemeko bidaia egiteko ezinduta geratu ziren. 1537ko ekainean, Vicenzako apezpikuak apeztu zuen Xabier.


Xabierrek ezagutu zuen Venezia hura gainbehera zebilen Turkiak Asiatiko komertzio bide tradizionalak bere mendean hartu zituen geroztik, horrek krisi latza piztu baitzuen itsasozko komertzioan. San Markos plazan, Basilikaren, Campanilearen eta Dux Jauregiaren ondoan, berriki eraikiak ziren prokuraduriak, erlojuko dorrea eta liburutegia.

Jerusalenera joateko esperantza galdurik, Aita Santuak eskatu zien bidaia hura ahortzi eta beren eliz lana Italian errotzeko. Xabierrek Vicenzan eman zuen bere lehenbiziko meza eta gero Bolonian aritu zen lanean 1537-1538ko neguan.

1538ko udaberrian, Ignazio eta bere ikasleak Erroman finkatu ziren, Aita Santuak Jesusen Konpainiari onepena ematea lortzeko asmoz. Xabier Inazioren idazkari aritzen da prozesu honetan.

Bitartean, Jesusen konpainiak izan zuen nahigaberik: hotsa zabaldu zen Inkisizioak heresiaz akusatu zituela Xabier eta bere lagunak, eta Inaziok auzitegietara jo beharrean gertatu zen akusazioa ezeztatzeko.

Lehenbiziko jesuita haien austeritateak eta prestakuntza intelektual bikainak ospea eta mirespena ekarri zizkien. Horregatik Juan III.a Portugalgo erregeak eta haren enbaxadoreak eskatu zioten Paulo III.a aita santuari haietako batzuk bidal zitzala Portugalek Indian zituen kolonietara.



Veneziako gondola



Errenazimentua

XV eta XVI. mendeetako kultura eta arte mugimenduari deritza *Errenazimentu*, zeinak Grezia eta Erromako kultura zaharraren modak berpiztu zituen.

Errenazimentuak gizona jartzen du unibertsoaren erdian. Erdi Aroan kultura oso teozentrikoa izan zen, eta Jainkoa zuen erdigune. Horregatik teologia zen ikasketarik inportanteena. Errenazimentuan, berriz, kultura antropozentrikoa da, gizona hartzen baitu bere arretaren erdigunetzat.

Mugimendu hau Italian sortu zen XV. mendean eta handik Europa osora zabandu XVI.ean. Bertan hartzen dute hasiera gure gaurko gizartearen ezaugarri askok.

Errenazimentuko artistek proportzioan eta orekan bilatu zuten edertasuna, marrazkiaren fintasunean eta kolorearen aberastasunean, Grezia-Errometako arte klasikoaren aginduen arabera.

Errenazimentuko artearen ezaugarriak:

- Arte edertasuna alderdi guztietan bilatzea.
- Pinturan, sakontasunaren efektua lortzea perspektibaren legeak aplikatuz paisaia eta eraikinen irudikapenean, Erdi Aroan ez bezala, orduko hondo doratuak lauak izaten baitziren.
- Eskulturan giza gorputzaren edertasunari antz ematen zaio eta, Grezia arte klasikoaren ildotik, oso maiz irudikatzen da biluztasuna, honetan ere Erdi Aroan ez bezala.
- Arkitekturan, proportzioa, oreka eta simetria bilatzen dira. Forma klasikoek berriro hartzen dute indar, eta bai ordena doriko, joniko eta konrintioak ere.

Humanismoa

Humanismo deritza Errenazimentuan giza espirituaren duintasuna baloratzen duen mugimendu intelektualari, garaiko kultura eta antzinako klasikoko lotuz. Humanismoa, beraz, Errenazimentuko alderdi filosofiko eta literarioa da.

Idazle eta pentsalari errenazentistak teologia huts-hutsa ikasi beharrean, aurreko mendeetan bezala, garrantzi handia ematen dio giza zientziak eta bereziki hizkuntza klasikoak ikasteari: latina eta grekoa. Antzinaroko obra asko, liburutegietako apaletan ahaztuak, argitara atera ziren berriz eta ikuspuntu berrieekin aztertu ziren.



Errenazimentuko eta Humanismoko kulturgune nagusiak



Inprenta

Humanista hauen ideiak eta idazkiak izugarri zabaldu ziren garai hartako asmakuntza bati esker: inprenta. Inprenta baino lehen antzeko beste sistema bat erabili zen: xilografia. Xilografian, testua beregan landua zuten zurezko taulak erabiltzen ziren inprimatzeko; baina hertsiki inprenta deritzana metalzko letra mugikorrek erabili zirenean hasi zen, zeinen bidez orrialde bat konposatu, tindatu eta prentsa batekin kopiak ateratzen ziren.

Maguntziako urregin bat, izenez Gutenberg, izan omen zen inprenta asmatu zuena, 1448. urtearen inguruan.

Inkiszioa

Erdi Aroko instituzioa zen. Sixto IV.a Aita Santuak berrantolatatu zuen Espainiarako, eta eliz auzitegi bihurtu, heresiako susmagarriak juzgatzeko eskumen osoak emanda. Zigorrek aldarrikatu eta betearazteko, *auto de fe* direlakoak egiten ziren, arrakasta handiko ikuskizun publikoak izaten zirenak.



XVI. mendeko inprenta



Auto de Fe baten irudikapena, Francisco Ricci



Italia XVI. mendean

Humanismoa Italian sortu zen, non Erromako garai zaharren oroitzapena bizi-bizia zen eta joera gotikoez oso pisu gutxi izan zuten.

Kultura latinoaren eraginaz gain, grekoarena ere etorri zen XIV. mendearen bukaeran, turkiar inperiotik ihesi joandako pentasari bizantziarrak Italian finkatu zirenean.

XIV eta XV. mendeetako hiri italiaroen susperraldiari esker, noble eta burges asko aberastu ziren eta beren diruaren parte bat arte eta literaturako obrak finantzatzeko erabili zuten: **mezenas** direlakoak dira. Haien artean Florentziako Medici familiakoak dira aipagarriak. Bankari aberats horiek hainbat belaunez gobernatu zuten Florentzia, eta Italiako errenazimentuaren sehaska bihurtu, edertasun gogoangarriko obrei esker, hala nola Florentziako katedrala eta Boticeiren *Venusen jaiotza* pintura.

Erromako hiria

XV. mendearen bukaeran, Erromak hartzen dio gaina Florentziari arte kontuetan. Erroma izanen da XVI. mendetik aurrera Europako artegune nagusia eta aita santuak izanen dira garai hartako mezenas berriak, bereziki Julio II.a eta Leon X.a.

Italiako eskualde guztietatik etortzen dira artistak Erromara San Pedroko basilika berria eraikitzen. Migel Anjel, Rafael eta Leonardo izanen dira XVI. mendeko hiru artista handiak.

Barroko jesuitikoa

Errenazimentua, denboraren joanean, Barroko bihurtzen da, estilo nabarra eta apaindura anitzekoa, aberatsa eta suntuosoa. Barrokoa Erreforma Katolikoaren estiloa izan zen. Jesuitek eliza mota berezi bat sortu zuten, zeinaren adibiderik hoberena Erromako "Gesú" delako eliza den; eliza horren barrenean Xabierren erlikia garrantzitsuena altxatua dago: haren beso eskuina.



Gesú eliza Erroman



Europa XVI. mendean

JARDUERAK

1. Europako gaurko mapa batean marraztu ezazu Xabierrek etapa honetan zer bide egin zuen (Paris, Meaux, Venezia, Erroma, Venezia, Vicenza, Bolonia eta Erroma).
2. Esan ezazu Italiako zein hiritan izan zen Xabier eta zer egin zuen haietako bakoitzean.
3. Azter ezazu Karlos I.aren garaiko Europaren mapa eta idatz ezazu San Frantzisko Xabierren garaiko Espainiak munduan zuen garrantziaz.
4. Bila ezazu auto de fe direlakoan gaineko informazioa eta Inkisizioarekin zuten loturaren gainekoa.
5. Zer ekarri zion kulturari inprenta asmatzeak?
6. Azter ezazu zergatik sortu zen Errenazimentua Italian.
7. Aipa ezazu Migel Anjel, Rafael eta Leonardoren obraren bat.
8. Egin ezazu arte txostentxo bat Erromako Gesù delako elizaren gainean.

5. Lehenbiziko bidaia: Indiara (1541)

Indiara bidean (1541)

Xabier Indian (1541-1545)

Aurkikunde handien arrazoiak

Portugesen hedakuntza Asian

Klima montzonikoa

Asia gaur

Hinduismoa

Indiako beste erlijioak

Indiara bidean (1541)

Portugalgo enbaxadoreak, bere errege Joan III.aren aginduz, eskatu zion Aita Santuari "Parisko maisu" horietako batzuk bidaltzeko Indietara misiolari. Eneko Loiolakoak erabaki zuen Rodriguez portugesa eta Nicolás Bobadilla gaztelaua joatea. Bobadilla eritu zelarik, Xabierrek hartu zuen haren lekua eta handi bi egunera atera zen Erromatik (1540ko martxoaren 15ean). Santua urtebetean egon zen Lisboan Erregeak atxikirik. Azkenik, hasi zuen bere bidaia.

India ekialdekorantz abiatzen ziren ontzien irteera sonatua izaten zen. Bidaia luzea eta neketsua baitzen, eta arriskuz betea, nabiganteak testamentua egin eta konfesatu egiten ziren, atera aurretik. Jende asko biltzen zen haiei despedida emateko.

Lisboatik Erregeren flotako lau ontzi atera ziren: *Espíritu Santo*, *Santa Fe*, *San Pedro*, *Flor de la Mar* eta *Santiago* ontzi buruzagia, Frantzisko zeramana, Lisboatik Indiako Goa hirira inoko 26.000 kilometroak ibiltze-ra. 1541eko apirilaren 7a zen. Xabierrek egun hartan 35 urte betetzen zituen.

Bidaia beti bezain nekosoan izan zen. Frantzisko bi hilabetean mareatuta egon zen. Gineako golkoan, haize falta latza izan zuten eta asteak eta asteak egon ziren geldirik aingura botata. Uda zen, beroa latza, eta janariak usanduak eta harjoak zeuden, ura ere mindua, eta gaixoak ontziko bodegetan pilatzen ziren. Aurki eskorbutoa hasi zen ontzikoaren artean eta ondoren bai izurria ere. Horrela berrogei egunean egon ondoren, noizbaiteko batean haizeak belak puztu zituen eta Brasilgo kostetara eraman zituen ontziak, orduan Ekialdera joaten ziren ontzi portugesak nahitaez Brasilen barrena egin behar baitzuten bidea.

Abuztuaren bukaeran Mozambikera iritsi ziren eta han sei hilabete geratu, montzoiak galarazten baitzien joatea. Tripulazioak eta pasajeroak ezin txarragoko osasunean zeuden. Xabier ere eririk eta aun eginik iritsi omen zen. Hala ere, eri zaintzen aritu zen ospitalean.

1542ko otsailean berriz atera ziren Indiara bidean eta 1542ko maiatzean, Lisboatik atera eta hamahiru hila-betera, Frantzisko Xabierkoak lehenbizikoz bistatu zuen Goako kostara, bere bidaiaren azken helburua.



Lehenbiziko bidaia:
Lisboatik Goara

Xabier Indian (1541-1545)

Goa izan zen bere predikazioaren lehenbiziko gerta-lekua, bost hilabetez. Hospital Realean aritu zen eri zaintzen, bertan hartu baitzuen ostatu, Aita Santuaren nuntzioa bazen ere. Presoei eta legendu-nei kontu egiten zien eta gogo biziz ekin zion predikatzeari, katexima irakasteari, ohiturak ontzeari eta abar. Santa Fe-ko ikastetxea antolatu zuen Xabierrek.

Goatik, gobernadoreak Peskeriako kostara bidali zuen, handik 800 kilometrora.

Peskeria Indiako Hego muturrean dago, Komorin lur-muturraren ekialdean, Zeilango (gaur Sri Lanka) uhartearen aurrez. Itsasoaren eta mendi lerro garai baten arteko hondar zerrenda luzea da. Bertako bizi-lagunak parabak ziren, hogeita hamar herritan bizi zirenak; perla arrantzatik bizi ziren eta tamil hizkuntza egiten zuten. XVI. mendean bidaia itsasoz egiten zen baina lehorretik hurbil: haizea eta ur lasterrak aldekoak baziren, belaontzi batek hamar-hamabi egunetan egingo zuen bidea.



India

Perla arrantza

Indikoan perla-arrantza egitea arrisku handiko lana zen, marrazoengatik. Urpekariak aiztoa hortz artean eta lastretako besoetan harria zutela murgiltzen ziren. Hondoraino joan, ostrak erazi eta behin azaleraz gero perla preziatuak ateratzen zituzten.

Xabier Indian (1541-1545)

Gure santua Tutikorinen lehorreratu zen, Peskeriako herrietako bat, Xabierrek eskualde hartan egingo zuen lanaren erdigunea. Hasieran neke gogorak izan zituen hizkuntzarekin. Lau hilabetez han egonda bere katekesia eta bere irakasgaiak antolatu zituen eta hasi zen ebanjelioa herriz herri zabaltzen.

Paraba haiek abegi ona egin zioten Xabierren predikazioari (1542-1543). Honela dio Xabierrek bere karta batean: "hainbeste lagun etortzen zaizkit kristautu nahian, orain nagoen lur honetan, non askotan, bataiatu eta bataiatu, nekatzen zaizkidan besoak."

Kostako ibilbideetan Xabier brahmanekin topatu zen behin baino gehiagotan. Haiei ere iritsi zitzairen haren ibileren berri eta jakin zuten makina bat kristau berri egiten ari zela paraben artean; hortaz, susmo txarrez beterik itxoiten zioten. Kostako hiri batean, Tiruchendurren, gertatu zen batean, izan zuen brahmanekiko bilera handiena, Tiruchendurren tenplo hindu handia baitzegoen; han luze eztabaidatu zuen Xabierrek haiekin erlijio gaien gainean (1543).

Travankorko erresuman ere predikatu zuen Xabierrek (1544), Peskeria ondoan, Komorin lurmuturraren mendebal aldean. Hango bizilagunak, makuak deituak, arrantzale pobreak ziren, auzoko paraba haien leinu bereko jendea. Hamalau herri zituzten. Batzuk musulmanak ziren eta beste batzuk hinduak. Travankorko Rajak Xabierri eskatu zion ararteko izan zedila portugesen laguntza politikoa lortzeko eta bere menpekoei baimena eman zien nahi bazuten kristautzeko.

Zeilanen bost hilabetez predikatu ondoren (1545), Xabier Meliapurrera joan zen, gaur egun Madrasko auzoa, non Santo Tomas apostoluaren ustezko hilobia zegoen. Izan ere, tradizioak dio apostolu hark K.o. 1. mendean predikatu zuela Indian, eta lehenbiziko kristauak egin, eta Madrasko hil zela. Meliapurren lau hilabete egon zen Gaspar Coelho erretorearen etxean apopilo. Orduan sentitu zuen fini zela Indiako bere lana eta alde egin beharra zela ebanjelioa beste lur batzuetara eramatera.

Haize egokia sortu zenean, Malakarako itsasoratu zen, irailean. Despedidarako, Madrasko kristauen baldernak Santo Tomasen erlikia bat eman zion. Beti eramango zuen berekin.



Tiruchendurko tenploa; hemen izan zen Xabier eta Brahmanen bilera



Aurkikunde handien arrazoiak



Gaztelau eta portugesen itsas bideak

XV. mendearen bukaeran portugesez eta gaztelauz ordu arte ezagun zen mundua zabaltzeko, itsasozko hedakuntza mugimendu handia eginaz.

Bi arrazoi motak esplikatzeko dute zergatik gertatu zen hau garai honetan:

Arrazoi sozioekonomikoak:

- Izurri beltz izugarria bukatu zen (1348) eta bai Erdi Aroko gerra luzeak ere; horren ondorioz XV. mendearen erdialdean Europako populazioak nabarmen gora egin zuen eta beraz lehengai gehiago behar ziren artisauen industria hornitzeko.
- Garapen industrialak merkatu berriak eskatzen ditu eta merkataritzak ere moneden zirkulazioa behar du; horregatik urre eta zilar gehiago behar dira. Horregatik portugesez saleroste bizia hasi zuten Afrika barrenaldearekin, handik urrea, bolia eta Sudango esklaboak erdiesteko, Granadako musulmanek lehendik egin izan zuten bezala. Espainolek ere, bestalde, zilar kopuru izugarriak ateratu zituzten Amerikako meatzeetatik.
- Turkoek XV. mendearen erdialdean Konstantinopla hartu zutenean, eten egin zen Asiako espeziak Europaratzeko bide tradizionala, eta hortaz Indietarako itsasbide zuzeneko aurkitu beharra sortu zen.



Arrazoi zientifiko eta teknikoak:

- Espedizio hauek nabigazioaren teknikako berrikuntzei esker izan zuten arrakasta. Bi aparatuk erraztu zituzten izugarri itsasozko bidaiak: ipar orratza, XIII. menderako ezaguna, eta astrolabioa, XV.ean asmatua.
- Baina inportantzia gehiena izan zuen ontzien hobekuntzak. Izan ere, galera, ordu arte Mediterraneoan erabiltzen zena, astunegia zen Atlantikoko ur sakonetan nabigatzeko. Portugesek asmatu zituzten alturako nabigazioan erabili ziren bi ontziak: **nao** delakoa eta **karabela**. XVI. mendean karabelaren ordeztu galeoia ezarri zen (*ikus koadroa*).

Portugesen hedakuntza Asian

Portugesek Afrikako hegia segituz iritsi nahi zuten Indiako espezie-guneetara; Afrika hain handia zenik ez jakiki. Espainolek, berriz, Atlantikoan barrena iritsi nahi zuten leku berera, Lurra biribila zelakoan.

Vasco de Gamaren espedizio portugesak 1498an Esperantza Onaren muturra doblatu eta XV. mendean bukaeran iritsi zen Indiara; espainolak 1492an iritsi ziren Amerikara, ustez eta Ekialdeko Indiak aurkitu zituztela.


Portugesak Goan eta Malabar kostako hainbat puntutan finkatu ziren. Han, jakin zuten espezieak Insulindiatik zetozela eta burutan hartu zuten musulmanei kentzea espezieen salerostea.

1511n, Alfonso de Albuquerque buruzagi zela, portugesak Malaka hartu zuten. Ondoren Moluketan lehorreratu, Ternate eta Tidoreko sultanekin loturak ezarri eta Anbon eta Timorren finkatu ziren. XVI. mendea bukatu arte portugesak izugarri aberastu ziren espeziak salerosiz, baina handik aurrera holandesek kasatu eta ordeztu zituzten.

Goa

Goako hiria, India portugeseko burua, 1510ean kendu zien Alfonso de Albuquerquek musulmanei. Portugesek izugarriko leinurua eman zioten hiriari, itsasoz bestaldeko inperio portugeseko hiri inportanteena bihurtu arte. Elizak zituen, jauregiak, ikastetxeak, katedral bat, elementu gotortuak eta eraikin ofizialak Europako hiri handien eredura eginak.

Bom Jesus kapera, Goan. Xabierren mausoleoa eta gorpuzkinak dauzka






Galeoi portugesak XVI. Mendean

Galeoi portugesak ontzi handi astunak ziren, 800 tona metrikokoak. Bertan 100 bat gizon joaten ziren elkar-gainka, eskifaia, soldaduak eta pasajeroak, salgaiak eta jatekoak kontatu gabe. Emakumeek debeku zuten ontzi horietan joatea.

Hiru masta zituzten, hainbat zubi, brankan eta popan gaztelu bana, bela zabalak, gurutze handiez pinta-tuak, eta karelaren arrasean 20 kanoi. Hala ere, itxura beldurgarrikoak izan arren, ez ziren sendoak, eta gehienetan 4 edo 5 urteren buruan ontzioletan desegitera eraman behar izaten ziren, erabat kaskartuta egoten zirelako. Erregeren flota osatzen zuten bost ontzietatik, batek Goara baino lehen urpe egin zuen eta beste batek, Santiago, Xabier zeramanak, iritsi eta zenbait hilabetera egin zuen berebat.

Ontzi portugesak lasterrenek egunean 95 bat km egiten zuten, hau da, Moluketako, Japoniako, Indiako eta Txinako ontzietatik baino gehiago, horiek gehienez egunean 50 kilometrotik 70era bitarte egiten baitzuten.





Klima montzonikoa

Klima tropikal montzonikoa aro lehorra duten klima tropikalen aldaera da. Harrigarria bada ere, montzoien menpeko eremua Saharako desertuaren latitude berean dago.

Klima honek tenperatura altuak ditu, hotz-bero bitarte handiak eta euri gogorrak, urtaro batean kontzentratuak, montzoiak direlako haizeek ekarriak.

Montzoia sasioroko haizea da, noiz itsasotik noiz lehorretik heldu dena.

Neguan, iparretikako haize batek kurritzen du hegoaldeko Asia: neguko montzoia da; montzoi hau lehorra da, lehorretik itsasaldera joaten baita eta hegoaldera bidean berotu baita.

Udako montzoia, berriz, SWtik dator eta hezetasunez kargatuta dago, Ozeano indikoan barrena pasatzen baita. Iparrera ari dela, Indiaren hegoaldeko mendiekin tupust egin eta goratu egiten da. Goratze horretan hoztu, kondentsatu eta hodeiak sortzen ditu, eta ondorioz euria ere bai. Montzoi fenomeno honek esplikatzen du zergatik Asia osoan ez dagoen desertu klimako zerrenda bakarrik ere.

Klima bero eta heze honi esker eskualde honetan erraz etortzen da arroz, aspaldi-aspalditik Asia montzonikoko jendearen elikagai nagusia baita.

Tropikoetako zikloiak

Tropikoetako zikloiei *tifoiak* ere deritze Asia hego-mendebalean, eta *zirimolak* Amerika tropikalean. Eguraldi fenomeno izugarri bortitzak dira, tropiko euritsuen zenbait eskualde ukitzen dituztenak. Batzuetan haizeak, zurrumbiloen itxuran, 200 edo 300 kilometroko lastertasuna hartzen du eta euri jasa latzak ekartzen. Kalte handia egiten dute soroetan eta herrietan.



Kotxingo portua, Keralako estatuan



Asia gaur

Asia beti izan da, eta hala da gaur ere, oso toki erakargarria europarentzat. Giza neurriaz gaindiko luze-zabalera du: Asian, goi zelaiak garaigoak dira, mendikateak gaindiezinak, ibaietako uholdeak ikaragarriak, eta abar.

Asiako lurralde gaitzean munduaren gaineko gizakien erdiak bizi dira; 1.281 lagun Txinan, 1.050 milioi Indian eta 127 milioi Japonen.

XX. mendera arte Asiak leial eutsi die bere gizarteetako zolarri izan diren zenbait erlijio moduri eta ohitura morali. Hortaz, ezin da Asiako kultura ulertu bere erlijioen berri jakin gabe.



Merkatua Panaji-n, Goako estatuan



Hinduismoa

San Frantziskok ezagutu zuen Indian, gaurkoan bezala, denetariko erlijioak eta sinismenak nahaste zebiltzan: hinduismoa, budismoa, islama, kristautasuna eta abar.

Erlijio horietatik **hinduismoa** eta **budismoa** dira dudarik gabe inportanteenak. Asian duten hedaduragatik eta mundu osoan izan duten zabal-kuntzagatik. Hinduismoari bramanismo ere deritza, Indiako gizartearen egituratzean brahmanek izan duten paper handiagatik.

K.a. 1.220. urte inguruan herri indoeuroparrek India iparraldea inbaditu eta jainko sail luzea ekarri zuten berekin. Panteoi horretatik, bertako jainko eta sinesmenekin nahasita, hinduismoaren panteoia sortu zen, oso zabala, **Brahma** gorengo jainkotzat daukana.

Hinduismoa, Asiako beste erlijio batzuk bezala, arimak ber-haragitu egiten direla sinisten du. Arimak, hiltzen direnean, behin eta berriro itzultzen omen dira mundura beste gorputz batean. Behin eta berriroko bizialdi horiek dolorez beterik egoten dira beti eta hinduaren helburua hori da: noizbait ere ber-haragitzeen gurpiletik askatu eta Brahmarekin bat egitea, eternala eta aldazina baita.

Hinduismoak berekin dakar kastetan antolatutako gizartea. Beste zibilizazio batzuetan diruak edo leinuak markatzen dute bakoitzaren maila soziala; Indian, berriz erlijioak. Izan ere, Brahmak nahi izan zuen talde bakar batek dotrina begira eta gizartea zuzendu zezan: brahman direlakoak. Haietaz beherago, beste hiru talde daude, zein bere eginkizunean ari: **shatriyak**, hau da, gerrariak, **vaisyak**, nekazariak eta artisauak, eta **sudrak**, hots, morroiak. Hiru taldeok erabat itxiak dira eta ez dira nahasten.

Are beherago, pariak edo ukiezinak daude; eskubide guztiak eta begirune guztia ukatzen zaizkie, eta likits eta gizartez landarakotzat jotzen dira.

Zatiketa hori oinarri, mila urte baino gehiagoko prozesu batean, kasta sistema izugarri korapilatua garatu da, garbitasun mailaren arabera.

Ber-haragitzearen sinesmenak nor bere patuan etsi eta kasta sistema injustua onartzeko joera bultzatzen du: Izan ere, Zuzenaz kontrako bizia daramana kondenaturik dago beheragoko existentzia batean berharagitzera. Hortaz, behe-kasta batekoa izatea aurreko bizialdi batean egindako gaiztakerien ondorio da, kulpa baten seinalea.

Indiako konstituzioak, Gandiren ekimenez, Kastak abolitu zituen. Gaur egun, legez, herritar guztiak dira berdinak, baina tradiziozko sinesmenak hilgogorrak dira eta indar handia dute artean ere.



San Frantziskoren irudi Indiakoa



Indiako beste erlijioak

Budismoa

Budismoa funtsezko osagaia da Asia montzonikoaren erlijio eta kulturetarako. Indian sortu bazen ere, budismoa ia erabat desagertu da handik. Desagertu baino lehen, ordea, iparrera (Tibet), ipar ekialdera (Txina eta Japonia) eta ekialdera (Zeilan, Indotxina, Malaka eta Java) zabaldu zen.

Gaur, 800 milioi budista baino gehiago daude eta budismoaren eragina gero eta zabaltzen ari da Mendebalean ere.

Islama

Arabian sortutako erlijio hau gerragizon arabiarrek hedatu zuten ipar hemisferioko desertu beroetan barrena (Asia ekialdekoa, Afrika iparraldekoa, Iran), eskualde horietako kondizioak beren sorterrikoen antzekoak baitziren, eta ondoren India aldera (Pakistan mendebalekoa eta ekialdekoa), Indonesia aldera eta Afrika beltzera.



Yogi hindua



JARDUERAK

1. Laburbil itzazu aurkikundeen arrazoiak.
2. Zergatik ziren zure ustez hain inportanteak espezieak garai hartako gizonentzat?
3. *Gaztelauen eta portugesen itsas bideak* delako mapa aztertu eta iruzkin ezazu zer kinkatan zegoen Turkiarren inperioa eta zer premia zegoen Ekialdera joateko bide berriak aurkitzeko. Ikus ezazu mapan, halaber, nola Xabierrek Nabigante portugesen bide berbera segitu zuen.
4. Zer ezarri zuen Tordesillasko itunak?
5. Bila ezazu informazioa inperio portugesak hartutako lurraldeen gainean.
6. Ikas ezazu zer gauza inportante egin zituzten Marko Polok, Kolonek, Enrike nabiganteak eta Portugalgo Joan III.ak.
7. Deskriba ezazu nolakoa zen XVI. mendeko galeoi portugese bat. Begiratu ilustrazioa.
8. Zer da eskorbutoa?
9. Asiako mapa fisiko batean bila itzazu non dauden goi-ordoki nagusiak, mendirik garaienak eta ibai nagusiak.
10. Eskualde bateko klimak nola eragiten die itsasozko bidaiei?
11. Egin ezazu iruzkin pertsonal bat Indiako kasta sistemaren gainean.
12. Zer diferentzia eta zer antz ikusten diezu San Frantzisko Xabierkoaren erlijio kristauari eta hinduismoari?

6. Bigarren bidaia: Indonesiara (1545)

Malakan
Moluketan
Ternaten

Malakako portua
Indonesia gaur

Malakan

1545eko irailaren hasieran Xabier India utzi eta Malaka aldera abiatzen da. Hilabete bukaeran iristen da bertara, 2.700 kilometro egin ondoren. Handik, Sumatra eta Javako uharte handien ertza segituz, eta gero Indonesiako 4.000 uharte eta uhartetxoetan batetik bestera saltoka, 6.000 kilometro baino gehiago eginik Moluketara iritsi zen, Australiatik hurbil. Zazpi hilabete baino gehiagoko itsasaldia, osotara.

Malakan, Goan bezala, herriz herri predikatzen ibili zen, eta beste tokietan bezala bertako hizkuntzara itzuli zituen kristau otoitzak, kasu honetan malaierara, oso agudo ikasita. Xabier, izan ere, eta lekuko guztiek aho batez diotenez, oso iaioa zen hizkuntzak ikasteko.



Bigarren bidaia: Indiatik Indonesiara

1546ko urtarrilaren 1ean Malakatik atera zen Moluketara bidean. Malakatik Anbonerako bidaiak (uhartedi hartako uharte nagusia) hilabete eta erdi iraun zuen. Azkenik espedizioa Hatiwiko portuan lehorreratu zen, eta indigenen eta bertako portugesen harrera beroa jaso zuen.

Moluka uharteak Xabierren jarduleku nagusia izan ziren. 16 hilabetez uhartediko uharte nagusiak bisitatu eta bertako kristauen fedea sendotu zuen eginahalean.

Tradizioak nahi duenez, Zerameko Uhartera zihoaneko batean (gizaburu-ehiztarien lurra da hura) Xabierrek bere gurutzefika galdu zuen itsas erauntsi batean. Lehorreratu eta hondartzan zela, hara non karramarro bat uretatik atera eta ekarri dion eskura.

Kristau fedeak irla haietan gaur arte iraun badu, dudarik gabe santuaren egonaldiari esker izan da partez behintzat. Anbongo katedral xumeak Xabierren izena du eta haren historia oso ezaguna da gaurko katolikoek artean. Beste hainbeste gertatzen da Ternaten, Seramen edo Morotaien, bere bidaiako beste eskala batzuk.

Anbongo uharteak ehun kilometro baino gutxiagoko perimetroa du. Xabierren denboran hango bizilagunak partez alfurak ziren (jatorrizko biztanleak), eta partez papuak eta mendebaletik etorritako javanesak. Hizkuntza asko egiten ziren, baina malaiera oso lingua franca zabaldua zen irla guztietan. Xabierrek Anbongo "zazpi kristau herrietan" predikatu zuen.

Handik uhartez uharte predikatzen joan zen, Manuel gaztea lagun, Hatiwiko buruzagiaren semea, interprete lana egiten baitzion.



Moluka uharteak

Ternaten

Arraun eta belarekiko ontzi batean, Buru uhartean eskalatxo bat eginda, Xabier Ternatera iritsi zen, portugesez ekialde urrutian zuten azken ezargunea, Anbondik 500 kilometrora. 1546ko uztaila zen. Portuges koloniak oso harrera ona egin zion misiolariari Jordan de Freitas kapitaina zegoen bertako gotorlekuaren buruzagi, hiru urte lehenago Xabierrek Goan ezagutu zuena.

Xabier ez zen asko luzatu Ternaten. Han bi hilabete zituela, berriz atera zen bidaiari Moro uharteetarantz (gaur Morotai deituak). Hamabi urte baino gehiago ziren apaiz bakarrik ere ez zela hango kostetara inguratu. Haren aurrekoak, gainera, uharteko bizilagunek hil zituzten.

"Nire adiskide eta debot asko eginahalean aritu zaizkit ez joateko halako lur arriskutsu batera; eta ikusirik ezin nindutela joatetik istitu, pozoien kontrako botika asko ematen zizkidaten." Azken orduan, santuaren adiskideak santuari itsasontzia kentzen ere saiatu ziren. Noizbaiteko batean itsasoratu eta Morotaien lehorreratu zen, bertako bizilagun beldurgarrien artean ebanjelioa predikatzerara.

Indigena haiek, santuak deskribatu zizkigunez, oso atzeratuta zeuden: ez zekiten irakurtzen ez idazten eta ez zekiten zer zen dirua, urrea, zilarra, pisuak, neurriak, merkatuak, oihalak eta abar. Gizon zein emakumeen janzkera tjidako, delakoa zen, arbol zuntzez egindako mandar motza.

Anbonera itzulirik, 1547ko maiatzaren 15ean Malaka aldera abiatu zen, Bandako errege ontzian.

Espedizioak ipar mendebalerantz hartu zuen erruta, itsas zabaletik, Timorko uhartedia bistaratu arte.

Handik, Flores, Sumbawa, Lombok, Bali, Java eta Sumatrako uharteen ertzetik segitu zuen Malaka jo arte, 1547ko uztailaren hasieran. Handik Goara itzultzeko asmoa zuen, ordu arte egindako guztia sendotzeko.



Indigenak artxipelagoko merkatu batean



Malakako portua

Malaka, orduan merkataritza portu portugesez handiena zen, aberatsa eta kosmopolita, ontziz mukurua eta denetariko jardunez betea. Xabier bost aldiz egon zen Malakan, 1545eko irailetik 1552ko abendura. Nolabait esan, Malaka nafar jesuitaren kuartel nagusia izan zen, handik aldameneko lurraldeetara joateko: Molukak, Makasar, Anbon eta Moro uharteak. Malakatik atera ere zen bere bizialdiko azken saiorako: Ebanjelioa Txinara eramatea.

Malaka montzoietatik babestuta zegoen eta horregatik toki ezin hobea zen portu komertziala izateko. Han, Europako, Indiako, Arabiako eta Txinako merkatariek bat egiten zuten. Kokaera estrategiko izugarri egokia zuen Malakako itsasartean, Mendebalaren eta Ekialdearen arteko merkataribideen ezinbesteko pasabidea baitzen. Malakako portuan ezin konta ahala ontzi egoten ziren, oihalez, tapizez, opioz, intsentsuz, piper hautsez, Oiltze eta beste anitz espeziaz, algodoiez, mihisez, altzairuz, kontserbaz, arrozaz, lakaz, zur preziotsuez, alkanforrez, zetaz eta porzellanaz kargaturik.

Malakak hainbesteko garrantzi komertzial eta estrategikoa zuela ikusirik, portugesek hartu egin zuten 1511n, Alfonso de Alburquerquearen eskuz, handik Moluketako espezia-salerosi irabazitsua beretzeko asmoan. 1580an, Portugal Espainiarekin batu zelarik, portugesez interesak atzean xamar geratu ziren. Beranduago holandesez, Espainiatik bereizteko gerran, kendu egin zieten Malaka portugesei 1641ean.

Moluketako espeziak

Portugesez Indonesian hedatzera eramane zituzten espezia preziatu haiek **iltzea** eta **intxaur muskatua** ziren. Espezia horiek ekartzen zituzten landareek irla horietan beste inon ez zuten etsitzen. Iltzea, adibidez, Ternaten, Timorren eta ondoko beste uharte batzuetan soilik etortzen zen, eta intxaur muskatua Banda uharteetan baizik ez. Espezia horiek errekista handia zuten Europan eta irabazpide izugarrikoak ziren.

Espezieen garrantzi komertziala gainbehera hasi zen XVII. Mendearen bukaera aldera, errekista gutxiago zegoelako eta lortu zelako landareak beste toki batzuetan laketzea.



Iltzea



Indonesia gaur

Indonesia artxipelago gaitza da, Malasiako kostetatik hasi eta ia Australiarainokoa. Indonesiako estatuaren ikur-hitza *Bhinneka Tunggal Ika* da, hau da, "aniztasunean bat". Oso lema egokia da dudarik gabe herri honen aniztasun ikaragarriak: 17.000 uharte eta 220 milioi biztanle, 300 telde etnikotan banatuak, 250 hizkuntza desberdin mintzatzen dituztenak. Herria, oro har, 1,9 milioi km²ko azalera du eta biztanle dentsitatea km²ko 110 biztanle bat baino gehiagokoa da.

Uhartedi horren erditsuan Molukak daude: 999 uharte tamaina askotakoak, gainerako Indonesiatik oso bereziak floraz, faunaz eta ezaugarri kulturalak. Biztanleak austranesio eta polinesiozko nahasketa bat dira. Fauna aberastasuna ikaragarria da: 265 hegazti espezi katalogatu dira, adibidez, eta haietatik 195 ez dira hemen baizik aurkitzen munduan.

Xabierren kartak

Xabierrek 190 karta idatzi zituen; haietatik 108 iritsi zaizkigu.

Bizirik zela, haren kartak Europa osoan irakurtzen ziren eta eragin latza izaten zuten kristauengan: hasi Pablo III.a Aita Santutik eta Kuriako kardinaleetatik, herritar portugesez xumeetaraino, elizetan irakurtzen baitzituzten, eta bai Jesusen konpainiako lagunak, Parisko unibertsitariak eta abar.

"Hemen, Goan, ospitalean jarri nintzen ostaturik eta komekatzera ematen nien bertako eriei; hainbeste ziren kofesatzera heldu zitzaizkidanak, non neure burua hamar zati eginik ere, ez nintzen aski izan denei kofesioa hartzeko. Eriek kasu egin ondoren, bada, osasundunak ere kofesatzen nituen goizetan, horietarik ere anitz heldu baitzitzaizkidan. Eta eguerdian gero kartzelara joaten nintzen, presoak kofesatzera, aurrena zenbait jarraibide eta instrukzio emanik, nola ongi kofesatu irakasteko..."

"...Herri hauetan ez da portugesez bizitzen, lurra elkorra eta pobrea baita oso. Hemengo kristioak, gure fedean nork eskolaturik ez dutela, kristio direla esateko bestetarako ez dira gauza. Herri hauetara iritsi nintzenean bataiatu gabeko neska-mutilak bataiatzen nituen. Hortaz makina bat haur bataiatu nituen... herrietara iritsita meska-mutilek ez zidaten bakerik ematen ez ofizioa errezatu, ez jan, ez lorik egiteko, non eta otoitz batzuk irakasten ez nizkien..."

San Frantzisko Xabierkoaren bi kartaren zatiak

JARDUERAK

1. Indonesiako mapan begira ezazu zer bide egin zuen Xabierrek kapitulu honetan kontatzen den bidaiari.
2. Zergatik da Malaka hain portu estrategikoa?
3. Aipa itzazu ezagutzen dituzun espeziak.
4. Espezieez gain, zer produktu inportatzen eta esportatzen ziren Ekialdetik?
5. Kapitulu hau irakurri ondoren, esan zer erakarri dizun gehien arreta eta esan zergatik.

7. Hirugarren bidaia: Japonera (1549)

Goara itzuli eta Japonerako bidaia
Japongo aldia
Xabierren aztarna Japonen

Sintoismoa
Budismoa
Arte japonesa
Japon gaur

Goara itzulita Japonera nahirik

Ternatetik Anbonera itzuli zen Xabier, handik Malakara, eta gero Goara, Indian. Hartarako *La Banda* delako errege itsasontzia hartu zuen, Anbongo portuan aingura botata zegoena. Espedizioak ipar-mendebalera egin zuen bela, itsas zabaletik, Timorko uhartedia bistatu arte, eta gero Flores, Bali, Java eta Sumatrako kosten hurbiletik segitu, 1547ko uztailaren hasieran Malaka jo arte.

Tifoi batek eramanda ontzi portuges batek kasualidadez aurkitu zuen Japongo uhartea, Marco Polok behiala ikusitako Zipango famatua. Itsasgizon portuges haiek hiltzetik salbatu zuten lagiro izeneko japonés bat, bere herriko justizia orpotik zuena. Japonés hura oso adimen ernekoa eta oso berrizalea zen. Aditu zien portuges haiei nola Malakan ekialdeko apaiz handi bat aritzen zen predikatzen, eta ezagutu nahi izan zuen. Ezagutza hark (1547) eta ondorengo adiskidetasunak piztu zioten Xabierri Japonera joateko irrika.

Xabier Goara itzuli zen ordu arte egindako lana sendotu eta gero Japonerako bidaia hasteko asmotan.

1549ko apirilaren 15ean atera zen Goatik. Bi jesuita espainol zeramazkien laguntzat: aita Cosme de Torres eta Anaia Juan Fernández, eta horrez gain lagiro eta bi otsein.

Baina neke gogorrak izan zituen Malakan ontzi bat aurkitzeko. Ontzi guztiek Txinako kostetan gelditu nahi zuten negu-pasa, eta horrek urtebete galtzea esan nahi zuen. Azkenik gure santua Txinako pirata baten ontzian sartu beharrean gertatu zen, beste inork eraman nahi ez eta. Indonesia eta Txinako kostatik urrundu gabe bela eginez, ekaitz eta tifoien artean (montzoiaren sasoiaren baitzeuden) eta beste piratetatik ihesi, Kagoximara iritsi ziren noizbaiteko batean.



Hirugarren bidaia: Japonera

Japongo jarduerak (1549-1551)

Japongo zibilizazioak milaka urteko erroak eginak zituen bere artxipelagoan, itsasoak kanpoaldetik bakar-tuta zeukala. XVI. mende erdialdean harreman gutxi izaten zituen beste herriekin, non ez zen Txinarekin, eta harekin ere aldi berean behin baizik ez. Oso kultura sotila zuen eta erlijiozko sintoismoa eta budismoa zeuzkan. Horiek monasterio handiak zituzten uharte guztian, non bontzoak erlijio eta jakiunde maisu aritzen ziren.

1467az geroz Japon anarkia militar eta politikoan bizi zen. Enperadorearen autoritatea izen hutsa zen, *xogun* baten eskuetan uzten baitzuen agintea (Espainiako *valido* baten baliokidea). XVI. mende erdialdean *xogun* horrek ere ez zuen Japongo lurralde osoa bere eskuko. Agintea zatikaturik zegoen, *daimio* direlako jauntxo feudalen eskuetan. Berrehun *daimio* baino gehiago zeuden, baina hogeitak bakarrik ziren lehen *lerrokoak*.

Anarkia feudal honek ahulduta eta ezinduta zeukan uhartea, baina aldi berean kanpoaldeko komertzioa eta kristautasunaren hedakuntza ere bultzatzen zituen. Izan ere, Hegoaldeko *daimio*ek portugesezko armak eta salgaiak eskuratu nahi zituzten, eta hortaz onartu zuten komertzianta eta misiolariak uhartera etortzea.

1549ko abuztuaren 15ean Xabierrek eta lagunak Kagoximara iritsi ziren, Japongo hegoalde muturreko portua baita, Kiuxu delako irlan, artxipelagoa osatzen dituzten uharteetatik handienetako bat. Kagoxima lagiroren jaioterria zen eta berak eman zien sarbide Japonen etorri berriei. Satsumako *daimio*ak, izenez Shimadzuk, baimena eman zielarik, urtebete egon ziren Kagoxima alde hartan.

Xabierrentzat egoera berria zen. Japongo herria, izan ere, ordu arte ezagutu zituen besteak baino askoz gorago zegoen adimenez eta moralez: "japonesak beste inongo fedegabeak baino arrazoi zuzenagoko jendea dira; hain dute handia jakinmina non atergabe galdetzen dizkidaten mila gauza eta atergabe kontatzen dieten besteei zer erantzun diedan." Kanean hasi zen predikatzen, baina aurki buruz buruzko harremana hobetsita, etxeetara sartzen zen eta solasetan eta eztabaidetan parte hartzen, eta horietan japonesez arimaren sakontasunari oharitzen zitzaion. Kristau berriak hainbat argudio eta eztabaidaren ondoren sortzen dira, konbikzioak hartaratu, astiro. Urte baten buruan, 150 kristau berri egin ditu Kagoximan, Yahiroren etxe-koak aurrenekoak direla.



Japongo mapa

Japongo jarduerak (1549-1551)

Hurbileko Itxiku gazteluan beste hamabost lagun kristautuko ditu, jaun feudalaren familiakoak.

Handik hurbil, Hiradoko uhartetxoan, hiru hilabete eman zituen (1550eko abuztutik urrira) eta ehun inguru kristau berri egin.

Hurrengo etapan Honxuko uhartera pasatu zen, Japongo uharterik handiena, bere instituzio zentralen ezarlekua. Han ia urtebete egon zen, 1550eko azarotik 1551ko irailera bitarte. Xabierrek Japongo bihotzeraino iritsi nahi du. Jamagutxira jo du, non hilabetez predikatu eta Joxitaka daimioak errezibitu zuen, nahiz eta fruitu gutxirekin. Abendu erdialdean Miako hiriburura joate a erabakitzen du (gaurko Kioto), enperadorearengandik erdiesteko kristautasuna uharte osoan predikatze baimena. Bide gogorra izan zen, negu gorriean, urez eta lehorrez, hotza eta elurra jasanez, arrisku handiekin artean. Eraitza eskasa izan zen: Hiria aurriturik zegoen eta ez enperadoreak ez xogunak ez zioten entzunaldirik eman nahi izan. Etsita, Hiradora itzuli zen.

Jamagutxira itzuli eta Joxitaka daimioaren aurrean agertu zen eta Indiatik enperadorearentzat ekarritako opariak berari eman zizkion. Hark kristautasuna predikatze baimena eman zion eta bere sujetei ere baimena eman zien nahi zuena libre kristautu ahal izateko (apirila). Bost hilabetez gogor saiatu ondoren, mila bat jende kristautu zituen, eta horrela kristau balderna sutua sortu zuen Jamagutxin.

1551ko irailean Jamagutxi utzi eta Kiuxu uhartera itzuli zen, beste daimio batek hara deituta: Otomo Yoxisige Bungoko jaun feudal handiak, zeinak kristau bihurtu nahi omen zuen. Ez zen hala ere 1578 arte kristautu. Bungon zela, Portuges ontzi batek han aingura botata, Indiako albisteak ekarri zizkion eta harako itsasoratu zen berriz 1551n.



Jamagutxiko gaur egungo
San Frantzisko eliza

Xabierren aztarna japonen

Xabierren egonaldiaren ondotik agudo zabaldu zen kristautasuna eta 1570erako kristauak 30.000 baino gehiago ziren. 1587az geroztik hasi ziren haien kontrako jazarraldiak, eta mende eta erdi iraun zuten. Tokugawa delako aroan xogunak ordena berrezarri zuen inperioan. Japon bere baitan itxi zen eta lazki pertsekutatu zituen kristauak. 1597an, Nagasakin, Japongo 26 martiriak hil zituzten, San Pablo Miki buru zutela. XVII. mendearen hasieran pertsekuzioa berretu zen, misiolariak Japondik kasatu, kristautasuna debekatu eta mende erdi batean 5.000 baino gehiago kristau hil ziren. Kristau askok eutsi egin zioten beren fedeari agintarien isilik eta belaunez belaun transmititu harik eta 1865-1873 urte inguruan berriz erlijio askatasuna erdietsi zuten arte.



San Frantziskoren elizako dorrea, tenplo budisten artean. Hirado



Sintoismoa

Sintoismoa Japonen soilik dagoen erlijioa da, bertako erlijio nagusia, izan ere. Sintoismoko filosofiak bai Japongo historian eta bai japonesen izaeran eragina izan du. Japonieraz *Kami-No-Machi* du izena, hau da, "jainkoen bidea". Sintoismoaren iturburu dira antzinako Japongo herri tribalen mitoak; herri horiek, izan ere, uste zuten Lurreko biztanle bakarrak zirela, jainkoen ondorengoak.

Sintoistek *Kami* jainkoaren espiritua gurtzen dute, gauza guztietan presente egoten dena. Beheragoko beste jainko batzuk ere badira: kami txikiak; horiek herri jakin bakoitza babesten dute eta bai familia bakoitzaren alorrek ere. Gorengo jainkoa eguzkiaren jainkosa da, Amaterasu, Xima penintsulako Ise tenpluetan gurtua, Honxun, non Japonek izan dituen enperadore guztien espirituak gordetzen diren.

Tenplu sintoistak -japoneraz *jinja* deituak- Japon osoan aurkitzen dira. Tenplu bakoitzaren sarreran iturri bat egoten da, zeinera sinestunak eskuak eta ahoa garbitzera etortzen diren eskaintza bat egin aurretik. Erraz antz ematen zaio jinja horietako sarbideari, *torii* izena duen eta bi habe etzanez eta bi habe zutez osatutako ate bati esker. Bi estatua izaten ditu alde bietara, erdi lehoi erdi zakur. Irudi horietako batek ahoa zabalik du, besteak berriz itxirik. Bi soinuren irudikapena dira: jaiotzean egiten den "Ah" soinua eta hiltzean egiten den "MM" soinua. Tenpluetara etortzen direnek bi estatua horien erditik pasatu eta hortaz oroitzen dira bizitzatik heriotzarako tartea oso txikia dela.

Sintoismoan ez dago liburu sakraturik edo eskriturarik. Erritualak eta zeremoniak jainkoen bedeinkazioa hartzea dira jarduera ego gertaera jakin baterako. Bedeinkazio horiek japonesen eguneroko bizitzako osagai dira eta ministro sintoistek egiten dituzte. Jantzi luze aseak erabiltzen dituzte eta zeta lakatuzko kape-lu altuak, mila urtetan aldatu gabeko estilo batean eginak.



Japongo bionbo pintatua; behealdean, eskuinetara, frantzikotar eta jesuita talde bat ikusten da



Konfuzianismoa Txinako merkatarien bitartez iritsi zen Japonera eta eragin handia izan zuen sinesmen sintoisten gainean, gaur egungo Japonen oraindik garbi ageri denez. Konfuzianismoa kode etikoa da, eta arau inportanteen artean familiarenganako eta familiburuarenganako (aita) leialtasuna du. Ideia honek eta bai hildakoek bizirik irauten dutelako sinesmenak arbasoen kultura bezalako kultura patriarkala sortu zuen lehengo Japon tradizionalan.

Enperadoreari, jainko biziduna baita (*kami*), herriak gur egiten zion, herri japonesak osatzen zuen familiaren aita sinbolikoa zelako. Sinesmen horiek bigarren gerra mundialera arte iraun zuten indartsu, eta horrela ulertzen da nola piloto suiziden eskadroiek beren bizitza ematen zuten enperadorearena babesteko.

Eragin horren parte bat behintzat oraindik ikusgai da enpresaburu japonesez langileenganako izaten duten jarrera paternalistan eta haiengandik hartzen duten begirunean.

Sintoismoa ez da oztopo izaten beste erlijio batzuk praktikatzeko. Japongo etxe askotan elkarren ondoan ikusten dira arbasoentzako eskaintzak, Budaren estatua eta gurutzia.

Sintoismoak gauza guztien oinarritzko garbitasuna predikatzen du, eta ideia horrek budismoa uhartean zabaltzen lagundu zuen. Budismoa eta sintoismoa, elkarrekin inoiz nahastu gabe, elkarrekin dabilta japonesez gehien erlijioan. Tenplu budista askok tenplu sintoista bat edukitzen dute beren mugapean, edo halako batetik oso hurbil daude. Japonesez erlijio bateko zein besteko erritualak erabiltzen dituzte beren bizitzako gune seinalatuetan; adibidez: ezkontza zeremonia sintoista izaten da; hileta, berriz, budista.



Kiyomizuko tenplu budista, Kioton. Kiyomizu japonesez *ur garbia* da



Budismoa

Ekialdean erlijioa gehienbat meditazio eta bizi arau izaten da. Horregatik gizarte eragin handiagoa izan du Mendebalean baino. Brahmanismoak Indiako gizarte antolamendua itxuratu du eta konfuzianismoak Txinako bizitza politikoa.

Ekialdeko erlijio mugimendu ugarien artetik budismoa aipagarria da, Asiako erlijio handietako bat baita. Budismoa Indian agertu zen, han jaio baitzen Siddharta Gautama, *Buda*, haren fundatzailea. Segur aski Nepalen, K.a. VI. mendean bizi izan zen printzea izan zen, Gangesko erdialdeko arroan predikatu zuena.

Gaur egun budismoa ia erabat desagertu da Indiatik, baina Zeilanen, Birmanian, Tailandian, Kanboian, Laosen, Vietnamen, Txinan eta Japonian irauten du. Osotara budistak 800 miloi baino gehiago dira.

Budaren dotrinak zuzenean salbaziora ez daramaten ezagutza guztiak gaitzesten ditu, hau da, ber-haragitze prozesutik libratzera. Budak dioenez, desioa, bizitzeko irrika, da izaki bizidunak behin eta berriz haragitzearen arrazoia. Gizakiak lortzen badu bere baitan desio guztiak ezeztatzea, bizi-irrika ere bai, ez da berriz jaioko eta Nirvanan sartuko da. Brahmanentzat *nirvana* hitzak (iraungipena) aditzera ematen du giza-bana-koaren arimak Brahma gorengo jainkoarekin bat egiten duela, bizialdiaren azken buruko estadioan.

Japongo artea

Japongo artearen printzipio orokorra ongi islatzen da Suzuki Daietsu filosofoaren esaldi honetan: "Edertasuna ez dago forman, formak barnean daukan esanguran baizik."

Fernando García Gutiérrezek dioenez, japongo artearen ezaugarri orokorrak, bere historiako aldi guztietan nola edo hala behin eta berriz agertzen direnak, hauek dira:

- Arteak lotura estua du naturarekin eta maiz haren adierazpena da. Arteak ez du ordea natura kopiatzen, naturak bere baitan duen edertasuneko osagai funtsezkoak hartzen baizik, eta modu abstraktu eta xinpletuan berregiten.
- Arteak funtsean bakuna eta sinplea behar du, naturarekin duen loturaren ondorioz eta horregatik forma abstraktuak erabiltzen dira.
- Arte japonesak forma apaingarriak ditu laket: konposizioa aberatsa da, erritmikoa eta kolorez argia.
- Arte japonesak erraztasun handia du besteren estiloak eta joerak bereganatzeko, bere nortasuna emanaz, ordea.

Guregandik hurbilen dugun arte horren adibidea Iruñeko Jamagutxi parkea da, eta Xabierko gazteluan altxaturik dauden pinturak ere bai.



Jamagutxiko parkea, Iruña




Japon gaur

Japon, Asiako ekialde kostako uhartedia, munduko herrialderik jendetsuenetakoa da. 127 milioi biztanle ditu, 378.000 km²tan banatuak, hau da, km²ko 335 biztanle. Gainera, mendi eta oihan asko daude, eta beraz biztanleria are usuago biltzen da zenbait hiri eremutan. Tokyok, hiriburuak, 8 milioi biztanletik gora ditu eta haren inguruan osotara 31 milioi baino gehiago bilduta daude. Beste 11 hiri daude milioi biztanletik gorakoak.

Japon munduko monarkiarik zaharrena da, eta gaur duen konstituzio demokratikoa 1949an idatzi zen, Bigarren Mundu Gerra galdu ondoren, eta erreforma handiak ezarri zituen.

Orduz geroztik, izugarri azkartu zen Japon modernizatzeko eta industrializatzeko joera, Meiji aroan hasitakoa (1867). 2000. Urtean Japonek munduko Barne Produktu Gordinaren %15 aportatzen zuen eta haren per capita errenta 25.000 dolarretik hurbil zegoen. Munduko hirugarren ekonomia da, USA eta Europaren ondotik.

Japonen kasua oso berezia da bere bizimoduak antz handiagoa duelako Mendebaldeko Europa edo Estatu Batuetakoarenarekin auzoko Asiar herrienarekin baino, nahiz eta bere zibilizazio tradizionalaren funtsari eutsi dion.



Kagoximako hiria airetik ikusita; atzean Sukarujika sumendia



JARDUERAK

1. Esplika ezazu zer etapa izan zituen Xabierren Japongo predikazioak eta zergatik izan zen predikazio hura bestetan ez bezalakoa.
2. Zure ustez nola eragin diote Japongo erlijio printzipioek beren lan sistemari?
3. Iruñeko Jamagutxi parkea ikusi baduzu, zer diferentzia daude honetatik Iruñeko beste parke batzuetara?
4. Konpara ezazu pintura japonese bat garai bereko Europako beste batekin eta aipa itzazu ikusten dituzun diferentziak.

8. Laugarren bidaia: Txinara (1552)

Goara itzuli
Txinara bidean
Xabierren heriotza
Hiletak eta ehorztea

Ingurune fisikoa Txinan
Konfuzianismoa

Goara itzultzen da

1511ko azaroan Frantzisko Xabierkoa Japon utzi eta Indiara urez itzultzeko abiatu zen. Bidaia horretan zenbait egunetako pausua hartu zuen Txinako Santzian uhartetxoan. Bertan *Santa Cruz* ontzia aurkitu zuen ainguratuta, bere lagun Diego Pereira portuges merkatari aberatsarena.

Malakara iritsi zenean karta asko zituen zain; haietako bat Inazio Loiolakoarena, aditzera ematen ziona Jesusen Konpainiako Ekialdeko Probintzial izendatu zutela. Xabier, berri hori jasorik, Indiarako bideari berriz lotu eta 1552ko otsailan iritsi zen Goara. Alegrentzia handiarekin hartu zuen Goako jendeak, gehienek Japonen hil edo desagertu zela uste baitzuten.

Txinan predikatzeko buruzpidea Goara iritsi orduko erne zitzaion Xabierri; Xabierrek, izan ere, uste zuen hori ezinbesteko aurre-pausoa zela Japon kristautuko bazuen. Japonesek errespetu handia baitzietenTxinari. Xabierrek, bada, inperio hartara bidaia bat antolatzea erabaki zuen. Honela zioen bere karta batean: "... Txinara joateko esperantzan naiz, hortik mesede ederra hartuko baitu nere ustez Jainkoaren zerbitzuak; izan ere, japonesek jakiten dutenean txinarrek Jainkoaren legea onartu dutela, fitetza-go galduko dute sekta horiei dieten fedea."



Malakatik Santzianera

Txinarako bidaia

Xabierrek Goako erregeordea konbentzitu zuen Txinara portugesez enbaxada ofiziala bidaltzeko, hori beste modurik ez baitzegoen ontzi portugesez bat Txinako portu batean sartu ahal izateko. 1552ko apirilaren 17an atera zen enbaxada Goatik. Xabier Aita Santuaren mandatari eta Ekialderako Nuntzio Apostoliko zihuan. Diego Pereira, berriz, Portugalgo erregeren enbaxadore.

Malakara ailegatzean, hiria izurriak hartuta aurkitu zuten eta gaizkituei kasu egiteko geratu behar izan zuten Xabierrekin bide egindako pasajeroetatik, adibidez, hogeita hamasei hil ziren.

Ekainaren erdialdean, Diego Pereira iritsi zen, Santa Cruz ontzia piper-hautsez kargatuta zekarrela. Dena prest zegoen Txina aldera abiatzeko.

Baina denak kale egin zuen. Alvaro de Ataide gotorlekuko kapitaina, erregek "capitão do mar" izendatua, bekaiztu zen Pereirari emandako mailaz eta agindu zien bere Kapitaniako soldaduei Xabierren ontzia mugituz ezintzeko, lema, masta, lema eta belak kenduta.

Negoiazio askoren buruan, lortu zuten noizbaitere ontziko aparailuak berrezartzea. Ataidek uztailaren 17an eman zien baimena portutik ateratzeko, baina ez Portugalen enbaxada ofizialaren gisan. Esan bezala, horrek ia erabat ezintzen zuen Txinan sartzea. Eta Singapurko portutik aterata irailean jo zuten uhartea gehiagoko oztoporik gabe.

Santua hiru hilabetez egon zen uhartetik atera ezinik. Merkatari txinatarrek ez zuten eraman nahi, zigor gogorren pean debeku zelako atzerritarrek Txinan sartzea. Azkenik, Kantongo merkatari batek baietza eman zion berrehun kruzaten truke bere hirira eramateko. Espedizioaren arriskua eta segurantzia falta ikusita, bere lagun eta lankiderik onenek ere alde egin zioten batak bestearen ondotik.

Xabierren heriotza



Frantzisko Xabierkoaren heriotza irudikatzen duen Txinako pintura

Itsasoratzeko zain zegoela, birikamin latz batek jo zuen Xabier. Bular guztia hartu zion eta sukar handia eta ahulezi latza sortu. Hainbat odol-hutsaldi egin zioten baina ez zuten askorik arindu. Azaroaren 21ean, meza esaten ari zela, alditxartu zen. Sukarrak gora egin eta goragalea eta larrimin handia eman zion. Aldizka konortea galtzen du eta aldizka eldarnioa hasten zaio.

Azkenik, Frantzisko Xabierkoa hil da Santziango hondartzako etxola pobre batean, Antonio bere adiskide txinatarra lagun bakar duela. Mila bostehun eta berrogeita hamabigarren urteko abenduaren hiruan zen, egunsentian. 46 urte zituen.

Hiletak eta ehorztea

Hil eta biharamunean uhartean bertan ehortzi zuten. Gorpua karez estali eta zurezko kutxa batean sartu zuten. Handik bi hilabetera, Indiara eramateko, hilobitik atera eta usteldu gaberik aurkitu zuten gorputza. 1553ko martxoaren 22an ailegatu zen gorputza Malakara. Zenbait egunez jendaurrean ikusgai egon ondoren, berriz ehortzi zuten Jesusen Konpainiako Santa María del Monte delako elizan.

1553ko ekainean Inaziok idatzi zion Xabierri Europara itzul dadila eskatzeko. Izan ere, 1554ra arte ez zen Europara ailegatu Xabier hil zelako berria.

Goatik behin eta berriz eskatu zuten gorputza, eta 1553ko abenduan Xabierren zerraldoa Indiarantz atera zen itsasontzi batean.

Goan milaka jendek parte hartu zuten haren hiletetan eta ehortzaldian. Handik denbora batera, gorputza oraindik usteldu gabea zela, hiri horretako Bom Jesus delako elizara aldatu zuten eta han dago gaur ere mausoleo zoragarri batean.



Xabierren lehenbiziko hilobia, Santziango elizaren barrenean



Txinako ingurune fisikoa

Klima epelek bi hemisferioetako 30° eta 60° paraleloen artekoak, ez dute ezagutzen tropikoetako bero jarraitua ez eta latitude altuetako hotz etengabea ere. Horregatik deritze klima epel. Bi barietate nagusi dituzte:

- Kontinenteetako mendebalde fatxadetako klima, mediterraniarra deitua.
- Kontinenteetako ekialde fatxadetako klima, Txina erakoa deitua.

Txina erako klima, ipar hemisferioan, Estatu Batuetako hego-ekialdean, Txinako erdialdean eta hegoaldean eta Japonen zati handi batean aurkitzen da, eta hego hemisferioan Uruguayan eta Argentinako Pampa hezean, hegoaldeko Afrikan eta Australiako Hego-ekialdean.

Kontuan hartu Txinako hegoaldea dagoen latitude berean beste toki batzuetan desertua egoten dela (Sahara iparraldea eta Arabia).

Uda beroa eta hezea da eta negua ezta eta euritsua. Neguko euriak, Mediterraneoan bezala, Mendebal-detikako beheraguneez ekartzen dituzte, Yang-tse ibaiaren bidean barrena Japoneraino iristen direnak.

Kontinentearen eraginagatik, udan bero latzeko egunak izaten dira eta neguan, berriz, hotzaldi gogorak.

Txinako landaretza

Txinako landaretzak espezie tropikalak eta espezie epelak izaten ditu batera. Banbuak, palmondoak eta erramu antzeko zuhaixkak (magnoliak, kameliak, te zuhaixkak) eta eremu epeleko koniferoak (pinuak, izeiak). Baso misto hau Mediterraneoak baino hagitzez sarriagoa eta azkarragoa da, ez baitu, hark bezala, lehorraldi luze baten eragina nozitzen.

Santzian

Santzian, gaur egun Shangchuan, uhartetxo malkartsu eta jendegabea da, Txinako kostatik 10 kilometrora. Bertan agintarien isilik biltzen ziren merkatari portugesak eta txinoak salerospenak egiteko. Hondartzan, abarrez eta lastoz eraikitako etxola saila zegoen, portugesei uhar-tean zeuden bitartean aterpe emateko. Etxola haietako batean hilko zen Xabier.

Shangchuanera joateko itsasbidea Tanshiango hiritik ateratzen zen, Kantonetik bi ordu eta erdira.

Santziango hondartza. Hemen hil zen San Frantzisko Xabier
1552ko abenduaren 3an





Konfuzianismoa

Konfuzio (K. a. 551-479) Txinako moral tradizionalaren aita da: arbasoen errespetua, obediencia, eginbeharra, eta abar. Haren dotrinak azaltzen duenez, goreneko ongia ez da plazera, bertutea baizik. Eta harainoko bidea norbere burua eskolatzea da. Eskolatzeari, hortaz, izugarrizko garrantzia ematen dio: gobernu on baten lehenbiziko eginbeharra da eskola zabaltzea.

Konfuzianismoak berekin dakar letratu edo mandarin direlakoak gizartean gailentzea, gizon ikasiek gobernatzea, horiek gai baitira Konfuziok gobernu gaiei buruz emandako arauen esangura ulertu eta eztabai-datzeko. Horiek izanen dira handik harako mendeetan gobernuko kargu ardurakoak hartuko dituztenak. Nekazari eskolagabez osatutako herri hartan, mandarinek hartzen zituzten erabaki guztiak: zergak finkatu, justizia partitu, erretenak, uharkak eta ureztatze sistemak zaindu, eta abar. Konfuziok herria eskolatu beharra predikatzen zuen, baina Txinako idazkera ideografikoak, zeinean ideia bakoitza zeinu batez irudikatzen den, 5.000 zeinu baino gehiago ikastea eskatzen du irakurri edo idatzi ahal izateko. Ikasbide hori oso da luzea eta nekea eta familia aberatsek soilik berdin dezakete horren kostua. Hortaz, gorengo gizarte taldeek hotsematen zuten beti gizartea, haiek baitziren diruaren eta eskolaren jabe bakarrak.

Konfuzianismoaren beste ideia funtsezko bat gurasoenganako obediencia da, eginbehar sakratutzat hartua, eta arbasoen gurtzapena ere bai. Emakumea erabat dago gizonezkoaren mende. Familia, beraz, gizarteko oinarrizko zelula da.

Estatu paternalista bat, jakintsuek gidatua, betebehar sakratu batzuek lotutako familia bat, tradizioaren errespetua, gizalegea izaeraren oinarrizko ezaugarritzat, denak dira Txinako historiaren eta gizakiaren ezaugarri gakoak eta denak Konfuziok duela 2.500 urte bere herriari utzitako ondare dira. Konfuzioren hitzak, bere ikasleek maitasunez bilduak, ia bere hartantxe iraun zuen XX. mendeko iraultzak sortu arte, goitik behera aldatu baitzuten mendez eta mendez batere kanbiorik izan ez zuen herri hura.

JARDUERAK

1. Esplica ezazu zergatik joan nahi zuen Xabierrek Txinara eta zer zailtasun izan zituen hartarako.
2. Deskriba ezazu zer eguraldi egingo zuen Santziango uhartean Xabier hil zenean, kontuan harturik uhartea geografikoki non dagoen.
3. Mapa mutu batean marka itzazu Txina moduko klima duten eskualdeak.
4. Oroitzen al zara zein ziren klima kontinentalen ezaugarriak eta haien faktoreak?
5. Xabier 46 urte zituela hil zen. Iker ezazu zein ziren XVI. mendean jendearen hiltze kausa nagusiak eta iker ezazu zer aurrerapen izan ziren aurreko mendeen alderako.
6. Zer gaitzek hil zuen San Frantzisko Xabierkoa? Gaur egun zer medikamenturen bidez sendatzen da gaitz hori?

Hitz-ondoa: Xabier gaur



Santu unibertsala

Frantzisko Xabierkoaren bizitzak eragin latza izan zuen bere garaiko Elizan eta gizartean. Oraindik bizirik zela, Xabierren kartak bururen buru zabaldu ziren European barrena. Jesuitek aita santuen eta erregeen geletaraino, ikastetxe eta unibertsitate guztietaraino eraman zituzten eta ausarki erabiltzen ziren edozein elizatako predikuetan ere.

Denboraren joanean Santuaren irudia are handiagotu eta sendoagotu zen. Ekialde osoan hil orduko hasi zen hedatzen santu fama. 1619an beato egin zuten. 1622ko martxoaren 12an Gregorio VI.a Aita Santuak santutu zuen, beste hiru espainol (San Ignazio Loiolakoa, Santa Teresa de Jesús eta San Isidro Labrador) eta Italiano batekin batera (San Felipe Neri). Haiak izan ziren Erreforma katolikoaren eta Barrokoaren santuak.

San Ignazio eta San Frantzisko Xabier izan ziren Jesusen Konpainiak bere irudia oinarritzeko hartu zituen bi zutabeak, bi ereduak, beste santu eta beato asko bazituen ere.

San Frantzisko Xabier da santurik ezagunena eta ikertuena. 3.000 artikulu, lan eta liburu baino gehiago argitaratu dira haren pertsonaren gainean. Beraren gaineko edo berarekin lotutako liburuak mila baino gehiago dira.

San Frantzisko Xabierrek piztu zituen fama eta debozioa arte lanetan ere gauzatu ziren. Hasi Zurbarán, Murillo, Gregorio Fernández, Martínez Montañés, Goya,edo Van Dyck bezalako pintore edo eskultore jenialeatik, harik eta herri-artista xumeetaraino, denek hartu zuten gure santua beren koadro eta irudietako gaitzat, grabatuak eta estanpak ahaztu gabe. Irudikapen horiek guztiak enkarguzko lanak izaten ziren eta haren eragina zenbatekoa eta norainokoa zen adierazten dute, boteregune handietatik zoko galduetaraino.

San Frantzisko Xabierrek zenbateko ospea izan zuen beste gertaera batek erakusten digu: Aro Modernoko santu guztietan berak bakarrak lortu zuen deitura bat eta toki-izen bat, Xabier, izen propio bihurtzea. Xabier imitatu nahiagatik izan zen hori: jendeak haren izen osoa erabiltzen zuen ponte-izentzat. Frantzisko Xabierkoa Frantzisko Xabier bihurtu zen mundu osoan eta makina bat hizkuntzatan.

Misioetako patroia

XVI. mendeaz geroztik Eliza Katolikoak gogo sendoa hartu zuen Kristautasuna Europaz landara zabaltzeko, mundu berria aurkituz zihoazen neurrian, benetan unibertsala bihurtzeko.

Horregatik misioak sortzea bultzatu zuen eta Amerika, Asia eta Afrikara misiolariak bidaltzea. Xabier haien guztien eredu izan zen. 1748an Aita Santuak Ekialdeko patroia izendatu zuen.

1927an Pio XI.ak misio katoliko guztietako patroia izendatu zuen eta 1952an Pio XII.ak Turismoko patroia.

Haren ohorezko katedralak eta elizak, hasi India eta Japonetik Hego Amerika eta Kanadaraino aurkitzen dira, eta bai ikastetxeak eta denetariko insituzioak ere.

Nafarroako patroia

1622an Erresumako Diputazioak Nafarroako patroia izendatu zuen eta halaxe berretsi zuten gorteez ere 1624an.

San Frantzisko Xabier nortasun ikur izanen da aurrerantz Nafarroa eta Nafarrentzat. Milaka nafarrek eraman dute eta eramaten dute haren izena, gure herrian maizenik ematen dena baita.

1985ean Foru Lege batek Nafarroako Egun bihurtu zuen Santuaren festa liturgikoa. Hori zela bide, Nafarroako Parlamentuak, Legearen hitzaurrean, honela zioen: "Xabierrek inork ez bezala irudikatzen ditu kezka intelektual eta humano bizia, aiurri eskuzabal eta abenturazalea, lurreko zokorik izkutuenak ere agerira ekartzeko ahaleginik barkatu ez zuen gizona. San Frantzisko Xabierkoak munduari erakutsi zion Nafarroako seme bat nola izan daitekeen kultura guztietara irekia, eta nola gaur ere kontinente guztietan herri anitzetako gizataldeek oroimenean daukaten."

Javierada

Xabierko gaztelua 1892an eraberritu eta haren irudiaren ohorezko santutegi bihurtu zelarik, eta komunikazioak eta garraibideak izugarri handitu izanaren ondorioz, Xabier lehen mailako gune espirituala bihurtu da XX. mende osoan zehar.

Javierada delakoa da debozio horren urteroko agerkari nagusia: Nafarroako alde guztietatik Xabierko gazteluraino oinez egiten den peleginazioa alegia. Oinezaldiaren errematetzat, gurutze bidea egiten da otoitzez Zangozatik Xabiererainoko azken zortzi kilometroetan eta atari zabaleko meza ospatzen da gazteluaren aurrean. Martxoko bi asteburutan egiten da; lehenbizikoa 4tik 12ra bitartean, Graziako bederatziurrenarekin batera.

JARDUERAK

1. Idatziz jaso ezazu zure herritik edo hiritik *Javierada* egiten duen norbaiten lekukotza eta iruzkin pertsonala egin.
2. Lerro batzuk idatzi liburu honetatik arreta gehien erakarri dizun alderdiaren gainean.

Lau bidaien mapa





- FORTÚN, Luis Javier eta AÍCUA, José María, *San Francisco Javier, 150 aniversario de la llegada a Japón, 1549-1999*, Iruña, San Francisco Javier fundazioa, 2000.
- GOIKOETXEA URIARTE, Iñaki: *Frantzisko Xabierkoa*, Ediciones Mensajero, Bilbo, 1999.
- HAINBAT EGILE, *Itinerario universal de Francisco de Javier*, Iruña, Nafarroako Gobernua, 2002.
- LAPITZ, Frantzisko, *Bi saindu heuscaldunen bizitza*, Hordago, Donostia 1978.
- RECONDO, José María, *San Francisco Javier*, Madril, Biblioteca de Autores Cristianos, 1999.
- RECONDO, José María, *San Francisco Javier. Biografía imposible de su muerte*, Sevilla, Biblioteca Grafite, 2002.
- RECONDO, José María, *San Francisco Javier. Cartas selectas*, Iruña, Diario de Navarra, 2003 (Biblioteca básica navarra, 31).
- SCHURHAMMER, *Francisco Javier, su vida y su tiempo*, Bilbo, Mensajero, 1999.

- http://www.vc.ehu.es/gordailua/Laphitz_1.htm
- <http://www.sanfranciscojavierfundacion.com/>
- <http://www.inet.es/santiago/javier.html>
- <http://www.ctv.es/USERS/jalolo/sfjavier.html>
- http://www.corazones.org/santos/francisco_javier.htm

Liburu honetan garai historiko ezinago gogoangarria hartzen da ikergai: XVI. mendea, San Frantzisko Xabierren bizitza haritzat erabiliz. Orpotik garraizkio Santuari Xabierko Gaztelutik, bere jaiolekutik, Japoneraino.

Informazioa bi mailatan antolatua dago: Xabierren bizitza, batetik, hau da, Santuaren bizi-ibilbidea Europan eta Asian barrena, eta Xabierren mundua, bestetik, zeinari esker bere bizitzaren garaiko gertaera esanguratsuenak eta ikusitako tokirik aipagarrienak ezagutuko ditugun.

Esperantza dugu liburu hau lagungarri izanen zaiola irakurleari XVI. mendearen ikuskera zehatzagoa izan eta Nafarroako irudi historikorik inportanteenetako bat hobeki ezagutzeko



9 788423 525560